



Kultura Elkarrekin Aurrera taldea sortu dute, Gorlizko eta Plentziako kulturgune bateratua egiteko asmoz. ▶9



Algortako Garrasika taldeak kontzertua eskainiko du herriko jaietan, uztailean. ▶15

hiruka

Uribe Kostako astekaria



85. zenbakia

2017ko
otsailaren 16tik
otsailaren 22ra arte



Gasoliozko batelez itsasadarraren alde batetik bestera joateko aukerak Alzagan eta Areetan baino ez daude gurean. ▶22-23

Itsasadarrean, bizirauten



«Gure erronka umeak zoriontsu izatea da»

Bea Sever Egaña algortarra Chrysallis Euskal Herria elkarteak kidea da. Transexualitate-egoeran dauden umeen gurasoek osatzen dute taldea.

Jendartean bulba duten mutilak eta zakila duten neskek badaudela aldarrikatu gura du Chrysallis Euskal Herria elkarteak, baita horren inguruko errealitatea ezagutarazi ere. Hori

dena azaltzeko zortzi hizkuntzataraz itzulitako materiala sortu dute, mundu osoan erreferentzia izatea lortu duen baliabidea. Horren gainean berba egin du Severrek. ▶16-17

HERRIZ HERRI ERANDIO

Eskalada-murrua egingo dute San Josen

Entrenatzeko gunea ere ipiniko du Udalak Erandiogoikoko auzoko parkean, bertan egingo dituen hiri-lanen artean.

Auzokideek erabaki dituzte eskalada-murrua eta entrenamendurako gunea, bertan kokatuko den «aisialdirako eta gozamenerako gunea berria» hautatzeko Udalak egindako inkestan. Galdeketa horretan, kirol-ekipamendu biak lehenetsi zituzten herritarrek, euren arteko aldea boto batena izanda. ▶5

Getxoztarren 201 proposamen kontuan hartu ditu Getxoko Udalak 2017ko udal-aurrekontuak osatzeko asmoz. ▶2

Leioa Bidean erosketak etxera eroateko zerbitzuan hainbat aldaketa egin dituzte Behargintzak eta merkataria leioaztarrek. ▶6

Berangoko auzoak lotzeko proiektua garatu ahal izateko, ikerketa bat egingo duela iragarri berri du Udalak. ▶8

Urdulizko Umore Gauak zikloaren barruan, Gorka Aginalde aktoreak bakarrikzeta eskainiko du, zapatuan. ▶14

Herritarren 201 «baliozko iritzi», udal-aurrekontuak osatzeko

Guztira, 490 proposamen jaso ditu Getxoko Udalak, 2017ko aurrekontuetan kontuan hartzeko. Horien arteko 289 baztertu egin dituzte, «prozesu honen jarduketa-eremutik kanpo daudelako», arduradunen berbetan.

Aurtengo aurrekontuak osatzeko prozesu parte-hartzailea abiatu zuen Getxoko Udalak. Hartara, herritarrek egingako proposamen guztietatik 201 «baliozkoak» direla azaldu du Gobernu-taldeak. Proposamenek zerikusia dute ondoko arloakaz: Ingurumena (75), Kirola (34), Gizarte Ekintza (21), Kultura (19), Sustapen Ekonomikoa (13), Berdintasuna (10), Gazteria (7), Herritarren Segurtasuna (7), bestelakoak (6), Babes Zibila (4), Hezkuntza (3), Osasuna (1) eta Euskara (1).

Behar bezala beteta aurkeztutako galdetegiak 454 izan dira guztira; horietan 490 proposamen egin dituzte. Hala ere, horien arteko 289 baztertu egin dituzte, «prozesu honen jarduketa-eremutik kanpo daudelako». Os-

tera, proposamenak dagozkien arloetara bidali dituztela jakinarazi dute udal-arduradunek.

Hurrengo pausoak

Parte-hartzearen prozesu horren lehengo fasea urtarrilaren 10etik 25era egin zen. Orain, proposamenen bidegarritasun teknikoa eta ekonomikoa aztertzen dabil udal-zerbitzu teknikoa. Ondoren, hautatuko dituen proposamenen behin betiko zerrenda eza-gutzero emango du Udalak.

Horren ostean, proposamenen lehentasuna ezarriko dute Getxoko herritarrek, parte hartzeko beste prozesu baten bidez, eta alde aurretik ezarritako bideak erabiliz. Bigarren fase hori otsaila amaitu baino lehen egingo da. Hautatutako proiektuak



Miloi bat euroko diru-saila esleitu du Udalak prozesu honetarako.

2017ko udal-aurrekontuen proiektuetan sartuko dira. Prozesua amaitzen denean, itzulketa-txosten bat egingo da, hartutako erabakien edo proposamenen justifikazioa azalduz.

Horretarako Udalak milioi bat euroko diru-saila esleitu du, aurrekon-

tu-aurreproiektuan aurreikusita dagoena. Prozesu hori Gobernu-taldeak (EAJ eta PSE-EE) eta EH Bilduk egingako akordioaren ondorioa da. Koalizio abertzaleak ere herritarren iritzia batzeko prozesuan parte hartu du, han-hemenka iritzia jaso.

Edukiontzi berrien arazoa Gobernu-taldearen «akatsa» dela salatu dute

Oposizioko udal-talde gehienek zarama batzeko biltegi berrien inguruan galdetu diote Gobernu-taldeari.

Getxon, orain dela gutxi, ipini dituzten edukiontziek kexa ugari eragin dituzte auzokideen artean. Sare sozialetan agertu diren hainbat mezuren arabera, jendeak «irisgarritasun-falta» eta «zikinagoak» direla salatu du. Modu berean, aurreko edukiontzien zabaltzeko zeuzkaten pedalen falta igarri du askok.

Horren harira, EH Bilduk galdetu egin dio Gobernu-taldeari zarama-ontzi berrien kostua zenbatekoa izan den, eta ipinitakoak ostera ere ordezkatzeko zein inbertsio beharko lukeen. Oposizioko beste alderdiek ere hainbat galdera egin dizkiote Gobernu-taldeari gai horren gainean. Koalizio



Edukiontzi berriei zeresan handia sortu dute udalerrian.

abertzalea kexu da «aitzakiakin baino ez digutelako erantzuten». EH Bilduk gogoratu duenez, Udalak «behin eta berriro» esan du edukiontziak «irisgarritasunagatik» hautatu direla, baina, hori «aitzakia baino ez da» koalizioaren ustez. Dioenez, Gobernu-taldeak ez zuen pedalaren kontua aintzat har-

tu, «ahaztu egin zitzaionalako». Akatsak egitea «normala» dela aitortzen du EH Bilduk, halere, akats horiek ez onartzea larritzat jo dute, «are gehiago, diru publikoaren kalterako denean». Oraindino zeresana emango dute edukiontzi berriek.

info+: www.hiruka.eus/getxo

Dendaz denda sistemari esker, 421 tona hondakin gaika batzea lortu da 2016an

Udalerriko arrandegi, fruta-denda eta supermerkatu gehienak batu dira daborduko dendaz dena hondakin gaika batzeko sistemara. 2015eko otsailean abiatu zuten sistema hori. Gerotik hona, zerbitzua zabalduz joan da, eta beste mota bateko material-zarama (papera, kartoia edo egurra) sortzen dituztenak ere batu dira, gaika batzeko. Horren helburua da aipatutako saltokiek sortzen dituzten hondakin guztiak %100 birziklatzea. Udalarren erronka da %50eko mailara heltzea 2022an, hondakinen gaikako bilketan, Europar Batasuneko araudia aintzat hartuta. Iazko balantzeari dagokionez, 63 tona inguru arrain-hondakin eta 358 tona paper eta kartoi batu ziren. Hiri-gintza, Obra eta Zerbitzuak Alorreko zinegotzia den Joseba Arregik balorazio oso ona egiten du sistemaz eta horrez 2016ko balantzeari. Dendaz dendako hondakinen gaikako bilketa-zerbitzua astelehenetik zapatura eskaintzen da.

info+: www.getxo.eus



Ideien sokadantza

Amnistiaren
aldeko
ametsetan preso

Presoen aldeko manira joango zara?», esan zidan lagun batek. «Buff... ba ez dakit», erantzun nion. Eta jarraian ohartu nintzen beste urte batez ez nintzela joango. Bai eta amorruez konturatu, baina ezin denean ezin da. Eta ez da ezintasun kontuagatik, baizik eta ezerosotasunagatik; lekuz kanp sentitzeagatik, alegia. Aurretiaz, bi manifestaziotan egona nintzen lagunekin, presoen *eskubideen* aldeko «manian» eta bietan alde egin nuen ibilbidea amaitu aurretik. Asmo kontuagatik ez da izan beraz, edo etxeko sofaren erosotasunagatik, edo aldarrikapenen kontran nagoelako. Pankartak mezu bat darama: presoen eskubideak, giza eskubideak... Alde. Jendeak (eta ez hiruzpalauk, baizik eta *jendeaz* ari naiz) beste bat: Amnistia, presoen *etxeratzea*... Eta ni? Aurka. Etorriko zaizkit interpretazio metaforikoak egiten dituzten olerkariak esaten *etxeratzea* Euskal Herriratzea dela baina mezuak, geroz eta argiagoak, hobeak. Lehen presoen banderolan «Euskal Herrira» jartzen zuen eta abestu ere, Euskal Herrira abesten zuten manifestetan. Aldaketa beraz, nahita eragindakoa da eta ez zoriz egindakoa. 2014ko manifestazio bateratuan itzuli nintzen berriro deialdira, eta haserre bueltatu. Une historikoa ren mailara egon ez eta manifestazio «isila» ohiko manifestazio bihurtu zutenen erruz. Hurrengo urtean zer egingo dudan? Antolatzaileek benetako ahalegina egiten badute bestelako kontsignak egon ez daitezen, joan. Bestela, Etxean geratu. Eta ez naiz bakarra, asko dira nik bezala pentsatzen duten euskal gazteak. Eusko Legebiltzarrean inoiz baino babes handiago daukan auziak, presoen Euskal herriratzearenak, kalean betiko oihartzuna izan du. Formetan desberdina den manifestazioa, betikoan bihurtzen dute edukian. Bakoi-tzak hausnar dezala.

Getxo

Nagusientzako hiria

Martxan dago Getxo
nagusientzako «hiri
atsegina» izatea lortzeko
proiektua: Getxo Lagunkoi.

Getxo «pertsona nagusientza-ko hiri atsegina» izatea gura du bertoko Udalak. Horretarako, Getxo Lagunkoi izeneko proiektua ipini du martxan. Hala, prozesu parte-hartzaile bat abiatuko dute, pertsona nagusientzat lagungarria izango den hiria diseinatzeko ideiak

zehazten joateko. Joan den ekainean eman zituen proiektuak bere lehenengo urratsak. Gaur egun, Getxon 80.000 lagun inguru bizi dira, eta 60 urtetik gorakoak dira horien %31. Orain arte abian ipinitako jardueren eta zerbitzuen artean hauek daude: Eusko Jaurlaritzaren Mugiment ekimena, ibiltzen joateko hitzorduak, erorketak aurreikusteko tailerrak eta smartphone telefonoak erabiltzen ikasteko saioak, eta pertsona nagusientzako ibilbideen eta baliabideen liburuxka kaleratzea. Imanol Landa alkateak proiektua jen-

daurrean aurkeztuko du datorren otsailaren 17an, barikuan, 11:00etan, Algortako Fadura kirolddegiko bilera-aretoan. Egingo den azterketatik aterako diren ondorioak martxoaren amaieran aurkeztuko dira, eta hurrengo faseagaz hasiko dira I. Lagunkoitasantzako Plana-Getxo Lagunkoia egiten. Horrek helburuak eta jokatzeko ildoak batuko ditu, baita ekimenetarako proposamenak ere. Hilaren 17tik aurrera udalwebgunean egongo da; prozesuaren berri izan eta parte hartzeko moduak ezagutu ahal izango dira.

LASTER
ERAIKIKO DIRA
PRÓXIMA
CONSTRUCCIÓN


Alangoeta
S.COOP.

ALGORTA
(GETXO)
ALANGO KALEAN



36

etxebizitza kostu-prezioan

2, 3 eta 4 logelakoak, garajea eta
trastelekua barne; kooperatiba-erregimenean.

3 desde **320.600** €-tik aurrera
D/L

4 desde **357.500** €-tik aurrera
D/L

GESTIOA:





INFORMAZIOA ETA SALMENTA:



Inmoempresas
Algorta

alangoeta.com

94 460 95 53

Telletxe Kalea, 2, C (Algorta)

FINANTZIAZIOA:



Getxo

Parkingaren aldekoak

Getxoko EAJ alderdiak Ibarbengoako metro-geltoki parean egingo duten aparkalekua babestu du.

Getxoko Andra Marin dagoen Tosu landan eraikitze-ko dagoen aparkalekuaren eztabaida pil-pilean dago egunotan udalerrian. Hilabete baino gehiago daroa erresistentzia-kanpaldiak landan, Ibarbengoako metro-geltokiaren parean. Urtarrilaren 21ean ehunka gizon-emakume kalera atera ziren proiektuaren aurka. Bere alde-rik, Getxoko EAJk aparkalekuaren aldeko hautua berretsi du. Aipatu dute errealitatea «egoskorra» dela eta «nabarmen gertatzen sasi-egien edo demagogiaren artean». Alderdi politiko horren ustez, aparkalekuak «onurak»



Getxoko EAJk ezinbesteko proiektutzat du aparkalekua eta bide berriak.

ekarriko dizkio eskualdeari, Bizkaia-ri eta EAE osoari. «Proiektu hori EAJk herritarrek hartu dituen konpromisoetako bat da; eta herritarrek horixe babestu dute, gehiengoarekin eta modu eztabaidaiezinean, udal- eta foru-hauteskundeetan», arrazoitu dute.

Inguruan bizi direnei ere mesede «nabarmena» egingo diela uste dute jeltzaleek, «haiek zuzenean jasan behar izango lukete trafikoaren eta aparkalekuen kaosa, aparkalekua eta bide berriak egingo ez balira». Horrenbestez, EAJk ezinbestekoa ikusten du. ◀

Martxan daude QR ibilbideak, Getxoko ondarea ezagutzeko

Getxoko Turismo Bulegoak udal-erriko eskaintza zabaltzeko euskarri berria kaleratu du, *Ondare ibilaldiak* Getxon zehar izenekoak. Horren bitartez, Getxoko baliabide turistiko garrantzitsuenak erakustez gainera, «digitalizazioa txertatzen lagunduko du» euskarriak. Turistek udalerrian egin ditzaketen ibilbide elkarreragiak agertzen dira argitalpen berrian: eskuko telefonoen bitartez, QR kodeetan gordetako informazioari jarraituz, sakonago ezagutu ahal dira *Magic Fly Experience* eta *Portu Zaharra, etxez etxe*. Biak lau hizkuntzatan daude eskuragarri: euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez. QR kodeak izateaz gainera, ibilbide biek doako app-ak ere badituzte. Horrez gainera, turistek internetarako konexioa izateko doako wifi-guneak daude Getxon (liburuxkan zehazten dira zeintzuk diren), Euskaltelek eta Eusko Jaurlaritzak adostutako hitzarmen bati esker. ◀

Zurumurraren aurkako topaketak, azken aste-akabuan

Datorren otsailaren 25ean eta 26an, III. In Motion Zurumurrarik Ez Akzio Topaketak egingo dituzte Algortako Fadura kiroldegian. Horren helburua da Zurumurrarik Ez Estrategiaren barneko heziketa eta sareak sendotzea. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, oraingo honetan lau kolektibok parte hartuko dute: gazteek, pertsona nagusiek, eskoletako gurasoen elkarteek eta etorkinek. Zapatuan, hilaren 25ean, 11:00etatik 14:00etara, hurrengo gaiak jorratuko dituzte mintegietan: «Zurumurraren aurkako gazteak», EskuBeltz eta Ziztu Bizian taldeakaz, eta «Zaharkuntza aktiboa» Ajane taldeagaz. Arrastian,



04:00etatik 06:30era, beste gai hauek izango dira: «Heziketa-zentroa, bonbardaketa sozialeko bete-betea» eta «Bazkide ikusezina», besteak beste. Domekan, ostera, 10:00etan, «Zurumurraren Aurkako Estrategiaren inpletuaren gakoak» izango dituzte azterbide, beste hainbat gairen artean. ◀

Komunitatea ordaintzeko laguntza

Errenta maila txikiko familia unitateek jabe erkidegoen kuota ordaintzeko laguntzak emango ditu Getxoko Udalak. Laguntzok 150.000 euroko aurrekontua dute, eta 2016ko urtariletik abendura arteko kuotak ordaintzeko izango dira. Ohiko etxebizitzetako titularrek eskatu dezakete hori; ardura-dunek jakinarazi dutenez, biztanleen udal eroldaren eta hiri ondasun higiezinaren eroldaren bidez egiaztatuko dute hori. Eskatzaileak Getxon errol-datuta egon beharko dira, gutxienez, 2016ko urtarilaren 1etik baino lehenago; etxebizitzaren titularra izatea; eta behar besteko baliabide ekonomikorik ez izatea. Laguntzak martxoaren 13ra arte eskatu ahal izango dira. ◀

Bizkaibusek hainbat geraleku kendu ditu

Urtetik berri hasi zenetik Bizkaibusek linea bi moldatu ditu. Hori dela eta, Getxoko hainbat auzokide kexu dira; Santiago Sainz Ciudadanoseko zinegotziak jakinarazi du arazotako bat A3422 Berango-Areeta autobus-zerbitzuan dagoela. Izan ere, joan den urtarilaren 1etik linea horren joan-etorriko geraleku bi kendu dituzte. «Ibilbide berriak Neguriko auzokideak kaltetu ditu, nabarmen», salatu du Sainzek. Bestalde, A3531 Sopela, Gatika eta Mungia arteko autobus-zerbitzua Urdulizko ospitaleari zerbitzua emateko moldatu dute. Hala ere, Neguri, Itzubaltzeta/Romo eta Areeta «ahaztu» dituztela deitoratu du Ciudadanoseko zinegotziak. ◀

MARSUN
Ile-apaindegia eta Estetika

Umeei ilea ebakitzea 5€
Aurpegi hari-depilazioa

Ordutegi jarraia:
Asteazken, 9:30-19:00
(astelehenak itxita)
Zapatuak, 9:30-14:00

Alangoeta 6
ALGORTA
944.608.222
<http://peluqueriamarsun.com/>

Oinutsik
Kontsulta podologikoa

Nahia Andrés Bilbao (Kol. Zb. 236)

Zubigane 4, SOPELA · 94 404 74 20
podologiaoinutsik@gmail.com



Sekula Betikotik

ITXASO PAYA RUIZ
Sortzailea

Non bizi ote dira orain?

Etetik adreiluak besterik ikusten ez baziren ere, beti gustatu izan zaizkit auzoko zuhaitz adarretan ogi-apur poteoan aritzen ziren txori kantariak. Sarri auzoko zapaburuez zein Txutxiren baserriaz mintzatu izan naiz. Bena-Etxean ospatutako urtebetetzeak ere ez dira gutxi izan. Garai hartan Villamonteko parkean jolasten ginen, etxe ondoko landan bestela. Jada ez da aipaturik existitzen. Parke hura pribatua da gaur eta etxe ondoko landa asfaltoa. Triste jartzen naiz Matilde jostuna zein Jenaren etxea zegoen lekutik auzo biluzi honi begira eta beti gauza bera galdezen diot neure buruari: non bizi ote dira orain? ◀

Erendio

Eskalada-murrua eraikiko dute Erandiogoikoko San Jose auzoan

Erandioko Udalak eskalada-murrua eta entrenamenduak egiteko gunea ipiniko ditu datozen hilabeteotan, Erandiogoikoko San Jose auzoan, sarbidean dagoen parkean, bertan kirol-gune txiki bat ezarri. Proiektu biak auzokideek erabaki dituzte, Udalak egindako inkestan, bertan kokatuko duen «aisialdirako eta gozamenerako gunea berria» hauta zezaten. Galdeketa horretan, kirol-ekipamendu biak lehenetsi zituzten herritarrek, euren arteko alde bat bota batena izanda.

Hala, Udal Gobernuak hasieran egitasmo bat bakarrik egiteko asmoa bazuen ere, azkenean bi egingo ditu.

Ostera, hurrengo baterako geratu dira galdetegian proposatutako beste aukera batzuk: ume-jolasen gunea eta pertsona nagusientzako kaleko gim-

nasia-gunea. Aipatutako lau aukerez gainera, auzotarrek bestelako ekimenak eskatzeko aukera ere izan zuten.

Prozesu parte-hartzailean Udalak gogorarazi zuenez, auzoko sarreran dagoen parkean lehen «bazeuden zabuak, baina kendu egin behar izan ziren, ez zutelako araudia betetzen eta hondatuta zeudelako».

Aisialdirako ekipamendua auzoaren berrurbanizazio-proiektuagaz lotu du Udalak. Izan ere, datozen hilabeteotan zenbait lan egingo dituzte saneamendu-sarean, espaloietan, lorategietan, berdeguneetan, galtzadetan, eta abarretan. Horrez gainera, autoa uzteko gunea berriak ezarriko dituzte San Jose auzoan. Udal-iturriek diotenez, proiektua faseka egingo da. Behar horien kostua 300.000 euro ingurukoa izango da. ◀



«Sartu-irten eroso eta praktikoagoetarako zirkulazio-sistema bat» ipini gura du Udalak San Josen.

Musika-bandagaz hitzarmena berretsi du Udalak, urte batez



Bandak harremanak estutuko ditu Erandioko Udal Musika Eskolagaz. © ERANDIOKO UDALA

Erandioko Udalaren Erandioko Musika Banda musika-elkarteen arteko hitzarmenak beste urtebete iraungo du, udalerrian musika-jarduerak bultzatzeko asmoz.

Hala, eragile biek adostu duten legez, musika-bandak 28 emanaldi egingo ditu aurtengo udalerrian. Horien arteko 13 auzoetako jaietan izango dira; beste 9 emanaldi kultur eta kirol-ekimenetan izango dira; azkenik, bestelako 6 kontzertu emango dituzte Erandioko Musika Bandako kideek. Gainera, bandak Erandioko Udal Musika Eskolan trebatutako musikariak babestuko ditu, horiei irtenbidea emanez. Erandioko Udalak, bere aldetik, 90.000 euroko diru-laguntza emango

dio musika-elkarteari, bandak aurre egin ahal izateko honako gastuei: kideen dietak, material berriak erosi edo hobetu, bekak, Musika Eskolan prestatutako musikariak bandan sartzeak ekar ditzakeen gastuak eta musika-elkartearen partaideak trebatzeko.

Erandioko Udal Musika Eskolak bandari emango dio gai diren ikasle eta interesdunen zerrenda, musika-elkartean gerta daitekeen behin-behineko zein behin betiko edozein hutsune betetzeko, bertako ikasleek irtenbidea izan dezaten, eta bandaren etorkizuna bermatzeko. Horretarako, nahikoa izango da musika-bandak eskaera egitea. Era berean, bandak aukera emango die ikasleei eurakaz entseatzeko. ◀

Ludoteka-txartela emango diete umeei

Erandioko ludoteketara jolastera doazen neska-mutilek laster jasoko dute txarteltxo bana. 100 bat izaten dira Astrabuduko eta Altzagako aisialdi-zentroetan jolasten duten 3 eta 10 urte bitarteko ume eta gaztetxoak. Txartel horietan, argazkia eta izen-abizenakaz batera, egongo dira Ninja Dortoken ondoren ume erandioztarrek gogokoen dituzten dortokak: Agustina eta Lorentzo. Baina umeei bost axola zaizkien beste datu batzuk ere batuko ditu txartelak, hala nola, adingabeakoa ludotekatik jaso dezaketen pertsonen datuak. Datu horiek, umearen datuak eta txikitxoaren balizko alergia eta botikak tutoreren batek aurkeztu beharko ditu, dagokion ludotekan. ◀

Udalaren webgunea .EUS da, daborduko

Erandioko Udalak webgune berria estreinatu zuen pasa den astelehenean. *Erendio.eus* jaio zen, eduki gaurkotua eta itxura berritua dauzka. Joseba Goikouria alkateak eta Alaitz Etxeandia BizkayTIK fundazioaren zuzendari nagusiak azaldu zutenez, erakunde bien lankidetzatik sortu da atari berria. Hala, webguneak herritarrei eskainiko die Udalagaz izapide telematikoak egiteko aukera. Webgune berriak bestelako informazioa ere emango du, barbarako, Udalaren antolamendu, osaketa eta ekonomiaren gainera, udal-zerbitzu eta baliabideena, udalerriko egiturarena, eta auzokideei eta bisitariei zuzendutako eskaintza kulturalena ere bai. ◀

Altzagako jaiak antolatzen hasiko dira martitzenean

Erandioko jai-batzordeak Altzagako San Agustin jaiak antolatzen hasteko deia egin du. Horretarako lehenengo batzarra martitzen honetan ipini dute, otsailaren 21ean, 19:30ean, Bekoa ikastetxean. Jai-batzordeak gogorarazi duenez, «2016. urteko jaietan aipatu genuen moduan, jai-batzordeak jende berriaren konpromisoa eta lana ezinbestekoa izango du aurtengo jaiak antolatzeko». ◀



Kuadrillak dira Altzagako jaien oinarria.

Leioa



Erosketak egin eta ordu batzuetara jasotzen dituzte erosketak auzokideek. © LEIOAKO UDALA

Erosketak, etxean jasotzeko aukera

Leioa Bidean zerbitzuan hainbat berrikuntza egin dituzte Behargintzak eta merkataria leioaztarrek.

Leioa Bidean etxez etxeko banaketa-zerbitzuan hainbat berrikuntza egin dituzte Behargintzak eta merkatarien elkarteak. Batetik, saltoki bat baino gehiagotan erosketak egin ostean, erositako dena aldi berean etxean jasotzeko aukera edukiko dute bezeroek aurrerantzean; denda bakar batera joan izango balira bezala ordainduko dute. Gainera, bi hilabete behin, zerbitzu hori eskaintzen duten merkataritza-establezimenduen proposamen eta eskaintzak jasoko dituzte leioaztarrek, euren etxeetan. «Auzotarrak herriko merkataritzarekin duten fideltasuna eta hurbiltasun saritu» gura dute arduradunek. Etxez etxeko banaketak 1,65 euroko kostua dauka bezeroarentzat, eta kasu batzuetan

«zenbateko honetaz merkataria bera arduratzen da», udal-iturriek nabarmendu dutenez. Erosketak dendan bertan edo telefonoz egin daitezke; auzotarrak ordu batzuk beranduago jasotzen ditu erosketak bere etxean. Agintari leioaztarrek emandako datuen arabera, «zentrotik urrunago dauden auzoetan bizi diren lagunak eta zamarik hartu ezin duten pertsona zaharrenak dira zerbitzu honen erabil-tzaile nagusiak». Gaur egun, hogeitabat dende eskaintzen dute Leioa Bidean izeneko banaketa-zerbitzua.

Merkataritza indartzeko plan bereziaren barruan jaio zen Leioa Bidean; «herriarren eta saltokien arteko harremana zailtzen duen sakabanatze geografikoa ezabatu» gura zuten agintari leioaztarrek. Merkataritza lokala sustatzeko «apustu sendoagaz» jarraitzeko, Udalak 22.000 euro erabiliko ditu etxez etxeko banaketa-zerbitzua sustatzeko eta hobetzeko. ◀

info+: www.facebook.com/LeioaBidean

Euskarazko ekintzak egiteko diru-laguntzak

Euskarazko ekintzak edo programak bultzatzeko diru-laguntzen deialdia atera du Udalak, Euskara Zerbitzuaren bitartez; eskariak aurkezteko epea martxoaren 1era arte egongo da zabalik. Bertoko arduradunek azaldu dutenez, «Leioan euskararen erabilera sustatzea helburu nagusia duten ekintzak eta programak egiten dituzten pertsona fisiko edo juridikoak izango dira deialdi honen onuradunak». Guztira, 5.000 euro banatuko dituzte.

Hala, batetik, legez eratuta dauden irabazi-asmo bako erakundeek eta elkarteek edukiko dute diru-laguntzen deialdira aurkezteko aukera. Eskatzaileek Leioan izan beharko dute egoitza. Horrez gainera, udaletxeko elkartearen erregistroan egon beharko dute, eta euren jarduerak udalerrian egin beharko dituzte. Bestalde, talde-

ren baten ordezkariak direnek ere eskatu ahal izango dute diru-laguntza, «noizbehinkako ekimen bat» egiteko izatekotan eta udalerrian errolatuta egotekotan. Lagun horiek irabazteko asmo barik jardun beharko dute, udal-iturriek zehaztu dutenez. Diru-laguntza horietatik kanpo geratuko dira udalerriko ikastetxeetatik edo hezkuntza-zentroek sustatutako elkarteek sortutako ekimenak.

Diru-laguntzen onuradunak zeintzuk izan diren jakinarazteko epea sei hilabetekoa da, deialdia argitaratzen denean zenbatzen hasita; dirua 30 eguneko epean jasoko dute elkarteek edo norbanakoek. Diru-laguntza hauek beste diru-laguntza batzuek erabat bateragarriak dira, Udalak azaldu duenez. ◀

info+: euskarazerbitzua@leioa.net
euskarateknikaria@leioa.net

Estereotipo bako zahartzaroaren gaineko hausnarketa

Leioako Udalaren Berdintasun sailak #gurekinn izeneko egitasmoa ipiniko du martxan laster; udalerriko emakumeei zuzendutako ekimenak «estereotipo bako zahartzaroaren inguruko gogoeta» egin gura du, agintari leioaztarrek azaldu dutenez. Ikastaroa ordu biko (15 minutuko atsedendialdiagaz) zortzi saioetan banatuko da; asteen behin egingo dute. Hala, hiru lan-talde egongo dira: lehenengo, otsailaren 20an hasiko da eta apirilaren 10ean amaitu; bigarrena, maiatzaren 3tik ekainaren 21era izango da; eta hirugarrena, urriaren 23tik abenduaren 11ra artean. ◀

info+: 944 801 336

Bere errugabetasuna defendatu du Gazteluetako maisuak

Gazteluetako ikasle bati sexu-abusuak egitea egotzi dioten irakasle ohiak «erabat errugabea» dela esan du, ikastetxea osatzen duten kide guztiei bidalitako gutunean. «Ni ez naiz erruduna, eta ez dut ulertzen zergatik leporatu dizkidaten akusazio horiek», dio esku-titzean maisuak. «Epaiketan defendatu ahal izatea» espero duela azpimarratu du, «orain arte ia ezin izan dudalako, sistema horrelakoa delako eta errugabetasun-presuntziorik ez dagoela dirudielako». Hain zuzen ere, martitzenean, deklaratu behar izan zuen ustezko sexu-erasotzaileak, Getxoko epaitegian, otsailaren 14an. Sexu-abusuak ukatu egin zituen, epailearen aurrean. ◀

Kaleko argiak berriztatze kontratua onartu dute

Leioako Udalbatzak urtarrilaren 26ko osoko bilkuran onartu zuen Ferrovial eta Electricidad Martin sozietateek osatzen duten aldi baterako enpresa-elkartea kontratatzea, argite-ria publikoko mantenu-lanak egiteko. Udal-agintariak adierazi dutenez, «azpiegitura berriztatzea eta energia-konsumoak %40 aurrezteko ahalbidetuko du horrek»; izan ere, LED teknologia erabiltzen duten argiak ipini gura di-

tuzte. Oposizioko alderdiak, oster, ez daude guztiz ados. Besteak beste, «energia-iturri berriztagarriak bultzatzeko aukera galdu» egin dela uste du EH Bilduk. Bozketan argi geratu zen zein den batzuen eta besteen iritzia: Udal Gobernua osatzen duten EAJko eta PSE-EEko zinegotziek alde bozkatu zuten; ESNatu Leioako eta EH Bilduko ordezkariak, oster, aurka egin zuten; azkenik, PP abstenitu egin zen. ◀

BETIKO IKASTOLA

- 0-16 urte bitartean kalitatezko hezkuntza euskaraz.
- Ingelesa 4 urtetik aurrera. Frantsesa DBHn.
- Zerbitzu ugari: autobusa, jantokia, askaria, zaintza.
- Eskolaz kanpoko jarduerak ugari.
- Ikastolen Elkarte ikastola bakarra Leioan.

Artaza auzoa, 84. 48940 LEIOA
94 464 23 64/94 464 33 07
info@betikoikastola.net
www.betikoikastola.net

ikastolenelkartea

Sopela

Ingesta atondu dute

Ingurumen-hobekuntza proiektuari amaiera

emateko berbaldua egingo dute, zapatu honetan, otsailaren 18an.

Eusko Jaurlaritzagaz batera, Ingesta eremua berreskuratze-ko ingurumen-hobekuntzarako proiektua abiarazi zuen Sopelako Udalak, 2014an. Daborduko bi urte eta erdi igaro dira. Egitasmoari amaiera emateko asmoz, berbaldua antolatu dute zapatu honetan, Atxabiribil hondartzaren goiko aldean dagoen eremu horretan. Hitzordua 11:00etan ipini dute, otsailaren 18an. Udal-iturriek azaldu dutenez, proiektuaren xehetasunak azalduko dituzte eta Ingestatik paseo txiki bat emango dute. 2,3 hektareako zabaleraren eremua da eta garrantzi handikoa ikus-pun-



Atxabiribil hondartzaren goiko aldean dago Ingesta.

tu ekologikotik, paisajistikotik eta sozialetik. Horrez gainera, herri-landaketa egongo da. Ekitaldiak bi orduko iraupena izango du; amaieran, luncha egongo da; gura duten herritar guztiek parte har dezakete. Besteak beste, landare inbaditzaileak zuhaixka-forma-

ko espeziez ordezkatu, txilardien birsorkuntzarako ereite eta landaketak egin, esku hartzerik gabeko guneak hesitu, eta apo lasterkariaren populazioarentzako putzuak egin dituzte; Ingesta berreskuratzen hasteko lehen pausoak. ◀

Pizzeriek jasandako erasoak salatu ditu Denok Baterak

Azken aldian pintaketak egin dituzte Telepizzaren saltokiko hormetan. Aurretik, urtarilaren 14ko goizaldean, ezezagun batzuek Mec Mec pizzeriako leiho denak apurtu zituzten. Erasoa ohar baten bidez aldarrikatu zuten: urtarilaren 9an enpresa horretako langilea «sistema kapitalistak eragindako prekaritatearen ondorioz» hil zela salatu zuten. A.R.J. 24 urteko pizza-banatzaileak abenduaren 30ean izan zuen zirkulazio-istripua, Gorlizen, motorrean zihoala; handik bi astera zendu zen.

Bada, saltoki biek «kartel eta pintaketa bidez» jasandako «justifikatu bako erasoak eta akusazio kanpaina

onartezina» ez du begi onez ikusten Denok Batera alderdiak; eta Udalak adierazpen instituzionala plazara dezan eskatu du. Izan ere, euren ustez, «eraso nazkagarri horiek euren egileen tolerantzia ezaren adierazpena baino ez dira». Halaber, «askatasunaren eta bizikidetzaren aldeko zein indarkeriaren aurkako konpromisoa» berretsi du Denok Baterak.

Adierazpen instituzionala egiteko eskaera hori mozio bidez aurkeztu du alderdiak, otsaileko udal osoko bilkuran eztabaidatu ahal izateko. Helarazitako prentsa-oharrean, ez du ezer aipatu hildako A.R.J. 24 urteko langilearen inguruan. ◀

Udal-ludotekan izena emateko aukera, otsailaren 28ra arte

Ludotekan izena emateko epea Otsailaren 28ra arte zabalik egongo da; Kurtzio kultur etxean, Sopelaren bulegoan edo udaletxean egin daiteke. Jarduerak martxoaren 1etik ekainaren 30era arte izango dira; 4 eta 12 urte arteko umeek parte har dezakete. Hala ere, bi multzotan banatuta egongo dira: alde batetik, 4 eta 7 urte artekoak; eta bestetik, 8 eta 12 urte artekoak. Ordainketa martxoaren 1etik 31ra egin beharko da, Kurtzion. Lehen umeagatik 20 euro ordainduko dira; bigarrenagatik, 18 euro; eta hortik aurrerakoengatik, 16 euro. Otsailaren 23an, eguna, bilera informatiboa egongo da, arrastiko 07:00etan. ◀

Jaiak prestatzeko urteko lehenengo bilera, hilaren 23an

Sopelako eta Larrabasterrako Jai Batzordeak urteko lehenengo bilera egingo du otsailaren 23an, eguna; hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, Kurtzio kultur etxean. Ardura-dunek gogoratu dutenez, edozeinek parte har dezake batzordean; izan ere, «helburua da denon gustuko jaiak antolatzea, denon artean». Ez dago izena emateko beharrik; nahikoa da otsailaren 23an bilerara agertzeagaz. ◀



Gatzarrine bidea, 47. 48600 SOPELA · 94 676 02 66 · 689 01 04 28
info@anderdeuna.eus · www.anderdeunakastola.eus



Hemengo eta hango

GABI
BASAÑEZ RUIZ
Abeltzaina

Erromatik Tosura Lemoiz zeharkatuz

Hamabost urte nituela, Erromako Club-aren txostenaz zerbait entzun nuen lehen aldiz, Lemoizko zentral nuklearraren aurkako borrokaren lehen zantzuekin batera. Zentralaren aurkako borrokan lehen hildakoa - David Alvarez plentziarra- hilobiratzeaz bateratsu edo, Erromakoen txostenaren ondorioa ezagutu nuen: «Oraingo munduko populazioaren, industrializazioaren, kutsaduraren, jakien produkzioaren eta baliabide naturalen erabilpen gehiketa berdin jarraitu ezker, planetaren bizi-mugetara 100 urtez helduko gara». Aurreko mendearen 70. hamarkadaren amaiera zen. Jeltzaleak, besteak beste, tranketaraino sartuta zentral nuklearra kosta ahala kosta egin zedin, bere bizi-mugetarantz eroturik zihoan sistema bat eta esperantza bakarra: herri ekologismoa eta indarra piztu, antolatu eta ekitea. Gaur Chernobileko umeak datoz gurera euren osasuna hobetzera. Herri gogoa gauzatu izan ez bazan, geure umeak izan zitezkeen beste inora osasun bila joanak. Garoña? Erromakoek ba zioten bere: «Ereingarri den lur eremua finitua da», eta, noski, bizi-mugetara hel ez dadin babestu beharrekoa. Elikaduraren jabetza hemendik eta handik dugu hizpide. Susmatzen dugu bizi-mugetara heltzen ari garela, txostenik gabe ere. Eritzi publikoaren baitaila irabazia du ekologismoak, lur depredatzaile agertzea ez da politikoki zuzena. Itxurusoagoa da garraio publikozale agertzea. Zerbait aurreratu dogu. Eta hala ere, Erromako, Lemoizko irakaspenak buruzagiek ulertu ez. Diru gosea, biolentzi legalarekiko konfiantza, atzetik datozen belau-naldienganako ardura eza ikaragarria jeltzaleena. Baina, trankil, Muinarrikolandako puntarainio dena zementatu arte leku dago. Mercadonak oinak zementatu dizkio jada. Herri mobilizazio eta gogo eratua, esperantza berriro. ◀

Barrika

Taloa eta txistorra dastatzeko eguna egingo dute barikuan

Hitzordu garrantzitsuz betetako hilabetea da oraingoa barrikotzarrentzat; San Blas Eguna, Agate Deunaren bezpera... Eta bari-ku honetan, hilaren 17an, Talo Eguna antolatuko dute. Ekimena Barrikako Emakumeen Hitzza elkarteak prestatu du. Bertan, taloak egin, horiek dastatu eta sorpresa gehiago izango dituztela jakinarazi dute antolatzaileek. Den-dena Gure Ixerdia izeneko klubean egingo dute. Horregaz hitzordua arrastiko 07:30ean ipini dute, eta ekimen gastronomiko horretan parte har-

tu gura duten guzti-guztiak ekitaldira gonbidatu dituzte antolatzaileek.

Tostada onenaren bila

Horrenbestez, otsaila ekimenez betetako hilabetea da; eta, aipatutakoez gainera, auzokide asko batzen dituen beste hainbat ekitaldi gelditzen dira oraindino. Horien arteko famatuena Tostada Lehiaketa izan daiteke. Aurtengoa bederatzigarren edizioa izango da, eta otsailaren 27an egingo dute. Horretan parte hartu gura dutenek hilaren 25a baino lehen izena



Tripak asetzeko aukera egongo da. BASQUEHOST

eman beharko dute, eta euren proposamenak lehiaketa eguneko arrastiko 06:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dizkiete epaimahaikideei. ◀

Alarma-sistema ipini dute elektrizitate-kableen %90ean

Barrikako Udalak elektrizitate-kableen lapurretei aurre hartzeko sistema udalerriaren %90ean ezarri du daborduko. Hil ala biziko kontua dela jakinarazi dute udal-agintariek, kableak «etengabe» osten zituztelako udalerriko hainbat puntutan. Lapurretak saihesteko alarma-sistema hori 2016an ezartzen hasi ziren; aurreko urtean 20 lapurreta baino gehiago egon baitziren. Sistema berriagaz, kablea osten ahalegintzen direnean alarma isiotu egiten da eta zentralari abisua heltzen zaio; gero, Ertzaintzari. Horri esker, lapurtzeko ahaleginak egon baidira ere, ez da lapurretarik egon. ◀

Berango

Auzoak lotzeko asmoz

Ikerketa abiatuko

du Berangoko Udalak, udalerriko auzoak lotzeko proiektua garatzeko.

Berangoko auzoak lotu gura ditu bertako Udalak. Hori lortzera bidean, Sabino Arana kalea berregokitzeko prozesua martxan ipini du. Anabel Landa Berangoko alkateak akordura ekarri duenez, auzoen arteko loturak hobetzeko beharra dago. Hori dela eta, jakinarazi du ikertzen dabiltzala proiektu bat garatzeko aukera dagoen edo ez, helburu hori lortzeko. «Proiektu hori 2017an garatu ahal izango da, baina exekuzioa aurrerago izango litzateke», azaldu du Landak. Bestalde, Lola Malo de Molina PPko zinegotziak adierazi du euren proposamen bati esker garatuko duela Udalak Sabino Arana eta Kurtzes



Sabino Arana kalea berregokitzen hasiko dira laster.

arrapala-mekaniko batzuen bidez lotzeko proiektu bat, soberakinen bitartez. Horri erantzunez, Anabel Landak baieztatu du ez dutela hori aurreikus-ten aurtengo aurrekontuetarako. Dena den, soberakinen erabilera hori «otsai-

leko edo martxoko» osoko bilkuran eztabaidatuko dela jakinarazi du, eta azpimarratu duenez, oraindino ez dago erabakita zertara bideratuko duten diru-kopuru hori, «Udalbatzak beste gauza batera bideratzea erabaki dezake». ◀

Dispersioaren inguruko berbaldia egingo dute barikuan

Euskal presoan dispersioaren aurka lan egiten jarraitzen du Berangoko Sare taldeak. Joan den urtarri-laren 14an milaka gizon-emakumek Bilboko kaleak bete zituzten, dispersio-politikaren ondorioak salatze-ko. Horren ostean, herrira bueltatu eta behar horretan jarraitzeko ardur hartu zuten, herriz herri. Hala, berangoztarrek hurrengo hitzordua bari-ku honetan ipini dute, hilaren 17an: berbaldia antolatu dute, Berangoko kultur etxeko areto nagusian. Ekimenaren antolatzaileek jakinarazi dutenez, dispersioaren gaia jorrazteko Joseba Azkarraga Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza sailburu ohia eta Sare taldeko kidea gonbidatu dute. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, eta, Azkarragaren berbaldiaz gainera, bideo-emanaldi laburtxo bat ere egongo dela aurreratu dute antolatzaileek. ◀



Txirristan

MAITE MENTXAKA TENA
Ikerkuntza ikaslea


Idazkeraz hitz eta pitz

txura... #txitxa #hitza #edukiera #era #testubat Nola aprobetxatuko zenuke? Bereganatu? Apurtu edo lapurtu? Zer izango litzateke... Paretan *erredundante*, ahotan *sonoro*, buruan *zorabioan* eta bihotzean *oso*. Hitz errepikapenak, palindromoen magia, hizkuntzen azpiegiturak... haiekin jolasteko 11f^oRm^a daude. Idazkerak dituen gaitasunak ikaragarri bezain liluragarriak dira. Edukiaz aparte, forman ere jolasteko eta ikertzeko milaka modu existitzen dira. Bada, praktika artistikoetatik hurbil ibiltzearen testigu garrantzitsua. Eta honakoa gonbitea: goxo zein furioso zaudenekoan, barnekoak ateratzeko aukera da idaztea. Poesian murgildu. ◀

IMANOL RODRIGUEZ BASAURI MASTIGANE (1953-2017)

Agur eta ohore, Mastigane

Berak UK aldizkariari utzitako hamaika argazki zaharretan irudikatu genuen lehengo Berango. Gorostikoez gogoan dituzte beragaz batera batutako perretxiko denak; Sei Herrikoek zelan eskertu egindako guztia; Txakolin Egunaren antolatzaileek bere zaporea betiko akorduan... Berangoztar askok ez dute ahaztuko joan den barikuan zendu zen *Mastigane*: euskarari, lurrari eta herriari lotuta beti eta betiko.



Gorliz

KEA taldea: «Udalek kultura bultzatzen ez badute, jai dugu»

Gorlizko eta Plentziako kultur eskaintzari bultzada emateko asmoz, hainbat artistek kulturgune bat sortzeko plataforma sortu dute: Kultura Elkarrekin Aurrera.

Gorliz eta Plentzia udalerrietan kultur programazioa eta eskaintza nahikoa ez delakoan, herri horietako lau artista elkartu dira horren guztiaren norabidea aldatzen ahalegintzeko; eta Kultura Elkarrekin Aurrera (KEA) plataforma sortu dute. Musika, antzerkia, dantza, poesia eta beste hainbat diziplinako artistek osatzen dute taldea, eta euren helburua da udalerri bi horietako «bizitza kulturala sustatzea eta iraultzea».

Plataformako kideek deitoratu dutenez, Gorliz eta Plentzia «eragozpen handiak» daude kulturagaz lotutako edozer gauza antolatzeko. «Alde batetik, ez dago inolako aretorik, ez dago leku itxirik, eta zerbait egitekoan, kalean egin behar izaten dugu beti. Gainera, ez dago programazio koherente bat udalerri bien artean», azaldu du Iñaki Lagos biolin-joleak.

Hori guztia dela eta, Alex Ygartua antzerkigilea eta Zuria Bolaños dantzaria batu zitzaizkion Lagosi eta zentro kultural baten beharra zegoela ikusi zuten. Ondoren, Lucy Sepulveda poeta batu zitzaien aldarrikapen horretan, eta KEA plataforma sortu zuten. Daborduko Gorlizko eta Plentziako udalak batu dira, zentro kultural horren premia aldarrikatzeko. Proposamena aintzat hartu dute udal biek, eta bidegarritasun-txosten bat egiten hasiko dira laster, kulturgunea egiteko aukerarik dagoen edo ez jakiteko. «Ekainera arte egongo dira ikerketak egiten, eta ondorioak irail aldera ematea aurreikusten da», azaldu dute KEAkoek.

Gorlizko eta Plentziako udalakaz batzeaz gainera, udalerri bietako auzotarrak ere harremanetan ipini dira kulturaren aldekoak. Joan den martitzenean, hilaren 14an, Gorlizko auzokideakaz egon ziren; datorren



Iñaki Lagos, Alex Ygartua eta Zuria Bolaños artistek bultzatu dute KEA, Lucy Sepulvedagaz batera.

martitzenean, hilaren 21ean, berriz, plentziarren txanda izango da. Hitzordua arrastiko 07:00etan ipini dute, Goñi Portalen. «Garrantzitsuena da jendearekin harremanetan egotea. Bilerak irekiak dira; izan ere, gure asmoa da bi herrien artean lan egitea», jakinarazi dutenez.

Kulturaren «beharra»

Zentro kulturala izateko prozesua luzea izango dela aitortzen dute KEA plataformakoek. Halere, udalerri bietan kultura bultzatzeko sala, areto edo

gune alternatibo bat izatea beharrezkoa dela uste dute, «Bilbon dagoen Pabiloi 6 gunea bezalakoa». Euren ideia da lekua izatea kultur programazio finko bat izateko, «taldeak ekartzeko, jendeak antzerkiak ikusteko, eta abarrerako. Interesgarria izango litzateke herriarentzat, baita hemengo elkarrekin ere, euren tokia izango luketelako», azaldu dute. Horrez gainera, hezkuntzari ere garrantzia eman gura diote lau artistek. Izan ere, balizko areto horretan kulturari lotutako eskolak ematea ere aurreikusi dute. ◀

Gorlizko saneamendu-sistema hobetzeko lanak egin dituzte



Hustubidearen funtzionamendua hobetu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak 35 milioi eurogaz finantzaturako du 2017an zehar ur-hornidurako eta saneamenduko sareak hobetuko dituzten 36 proiekturen garapena. Iaz ere mota horretako 40 proiektu garatzeko laguntza ekonomikoa eman zuen; horien artean egon da Gorlizko saneamendu-sistemaren hustubideak bahetzeko, funtzionamendua hobetzeko asmoz. ◀

Kostaldeko lursail-eremu bat domeinu publiko izendatu dute

Plentziatik Astondorainoko kostaldearen mugatze-proiektua aurkeztu du Bizkaiko Kostaldeko Mugapenen erakundeak. Guztira 3.100 metro hartzen ditu eremu horrek, eta jabetza publikokoa da. Mugatze horregaz honakoak definitu gura izan dituzte: alde batetik, Espainiako Estatuaren ondasunak zeintzuk diren; bestetik, kostaldean garatuko diren ekintzei babes juridikoa emateko jarraibideak. Estatua

behartuta dago kostalde osoa mugatzera, eta Gorlizkoa egiteko zegoenetako bat zen, Fernando Pérez Burgos EAEko Kostaldeko Mugapeneko nagusiak jakinarazi duenez. Jabari publikoak Estatuaren jabetzak, Udalarenak eta pribatuak diren bereizten ditu. Mota horretakoak dira kostaldeko natur eremuak, baita ere noizbait naturalak izandakoak baina baimen baten ondorioz ezaugarri hori galdu dutenak. ◀

Gehienez 1.593 etxebizitza eraiki ahal izango dira



HAPoren Aurrerapenaren 5 proposamenak ikusgai egon dira Sertutxenan.

Gorlizko HAPoren Aurrerapenaren nondik norakoak ezagutzeko aukera egon da orain dela gutxira arte Sertutxena aretoan. Bertan ikusi ahal izan dira udalerriaren garapenerako aurreikusitako neurriak, berbarako, urbanizazio berriak sortzea. Hala ere, zehazten denez, ezin izango dira 1.593 etxebizitza baino gehiago eraiki. Kopuru horren barruan daude etxebizitza libreak, tasatuak zein babes ofizialekoak sartzen dira. Dena

den, erabaki hori ez da zurruna, eta baliatzen zenbateko hori aldatzea, udalagintarietara hartzen duten erabakien arabera. Izan ere, HAPoren Aurrerapenak bost aukera aurreikusten ditu. «Zero» izeneko txostenak urbanizatzeko eremu gehiago ez onartzea proposatzen du. Hala, eraikitzeko lursailak daudenak izango lirateke, eta 1.164 etxebizitza egin ahalko lirateke. Beste proposamenen zenbatekoak bestelakoak dira; 1.593 etxerainokoak, gehienez. ◀

Plentzia

Hausnarketa kritikoa bultzatzeko taldea

Ezbaian taldea aurkeztuko dute hilaren 23an; migrazio politikoa izango dute berbabide saio horretan.

Plentziako Danontzat gaztetxe-ko kideak Eraldaketarako Dantza prozesuan murgilduta egon dira oraintsura arte. Gogoetarako saio horietan ateratako ondorioetako bat hausnarketa kritikorako talde bat sortzea izan dela jakinarazi dute. Hala, Ezbaian taldea sortzea erabaki dute. Azaldu dutenez, «hausnarketa prozesuan gaztetxearen gabezi eta puntu indartsuak aztertu ostean, formakuntza, ikerketa eta analisirako talde zehatz bat sortzearen beharra ikusi genuen». Hala, hilero mahai-inguruak, eztabaidak, berbaldiak eta bestelako ekintzak antolatzeak asmoa

du talde berriak, bere kabuz zein gaztetxean parte hartzen duten gainontzeko eragileen laguntzagaz. Talde berria publiko aurkeztuko dute datorren hilaren 23an, eguenean. Halere, data hori heldu baino lehen, gaztetxe-ko ikus-entzunezko gela berriztu eta atondu egin dutela jakinarazi dute.

Ezbaian taldearen aurkezpena

Aurkezpena hilaren 23an egingo dute, 19:30ean, Danontzat gaztetxean bertan. Mikelon Zuloaga eskal ekintzailea gonbidatu dute, siriar errefuxiatuak Europara sartzen ahalgintzeagatik Grezian atxilotutako laguna. Taldearen nondik norakoak zehaztu eta gerturatuko direnen iritzia eta ekarpenak entzun ostean, Zuloagak errefuxiatuen egoeraz eta desobedientziaren hautua egitearen inguruan berba egingo du, besteak beste. ◀

Palas eraikina zaharberritzeko obrak gelditu dituzte

Palas eraikina zaharberritzeko eta bertan etxebizitzak eraikitze-ko prozesua geldirik dago, behin-behinean. Epai baten arabera Udalak arau subsidiarioetan moldaketa bat egin behar du; hori egin ezean, lanek ezin dute aurrera egin, auzokide batek salaketa bat ipini baitzuen. ◀



Udalak eta Gurutze Gorriak ikastaro bat zozkatuko dute

Plentziako Udalak eta Gurutze Gorriak ikastaro bat zozkatuko dute, profesionaltasun-ziurtagiria eskuratu eta mendekotasun egoeran dauden pertsonen gizarte-erakundeetan gizarte- eta osasun-arreta eman ahal izateko. Zozketa datorren hilaren 24an, barikuan, izango da, goizeko 11:00etan. Ikastaro hori dohainik eskuratu gura dutenek Udalak duen lan-bakoen zen-

tsuan izena eman beharko dute. Horrez gainera, adin nagusikoak izan beharko dira eta eskaera Herriarren Arretarako Bulegoan egin beharko dute. Halaber, eskatzen diren tituluetako bat izan beharko dute: hala nola DBH titulazioa, Hezkuntza-sistemen titulua, profesionaltasun-ziurtagiria, edo unibertsitatera sartzeko proba, 25 urtetik gorakoentzat. ◀

Urduliz

Pribatizazioa salatze-ko mobilizazioak, martitzenean

ELA, LAB, CCOO, ESK, SATSE eta UGT sindikatuek mobilizazioak egingo dituzte Osakidetzako zerbitzuak pribatizatzearen aurka. Hala, datorren hilaren 21ean, martitzenean, protesta egingo dute. Sindikatuon arabera, urtean 350 milioi euro bideratzen dituzte pribatizatutako zerbitzuetara. Horrez gainera, Urdulizko ospitaleko eguneko ospitale kirurgikoaren eta kirurgia handiko anbulatorioaren birmoldaketa egiteko 900.000 euro erabiltzea salatu du LAB sindikatuak, baita osasun-zentroa zabaldu eta gutxira hori egiteko beharra egotea ere.



Modu berean, ospitalean egiten den erabilera ere deitoratu du sindikatuak. Izan ere, jakinarazi duenez, arrastian ematen den zerbitzua Osateken ardurara da, hau da, erabat pribatua. ◀

Aurrekontuen prozesu parte-hartzailea salatu du EH Bilduk

Aurtengo aurrekontuetan txertatzeko aukera egon da egunotan Urdulizen. Horren harira, EH Bilduko udal-taldeak salatu du proiektu horiek denak ez direla Gobernu-taldeak proposatutakoak, «sei ideia hauetatik bost EH Bilduk proposatu zituen, eta EAJk aurka bozkatu zuen». Era berean, deitoratu du prozesu horretarako aurreikusitako diru-saila nahikoa ez izatea. Udal aurrekontuak 13 milioi eurokoak direla jakinarazi du koalizio abertzaleak, eta kopuru horretatik herritarrek 900.000 euro bakarrik «kudeatu» ahal izango

dituztela penaz adierazi du. Hori dela eta, EH Bilduko zinegotziek proiektu guztiei gehieneko puntuazioa ematera deitu zituzten herritarrek hilaren hasieran, «denak egin daitezela eskatzeko».

Aukeratzeko proiektuen artean, honako hauek daude: Eleizalde frontoia estaltzeko proiektua egitea; Igeltzera industriagunea asfaltatzea eta zoladura ipintzea; bertokoak diren zuhaitzak landatzea udalerriko berdeguneetan; udaletxearen atzeko etxebizitzaren ondoan errepide berri bat egitea; bidegorriak ugaritzea; eta trafikoa berregokitzea osasun zentroaren inguruan. ◀

Urdulizko etxebizitzaren behin betiko zerrenda osatu dute

Etxebizitza tasatu bat lortzeko 48 eskaera onartu ditu Urdulizko Udalak, azkenean. Hasiera batean 57 ziren onartutako eskaerak, baina azkenean beste 9 baztertzera erabaki du Udalak. Guztira, 37 etxebizitza eraikiko dituzte Atzeragaine eremuan, Iparralde kiroldegia-aren ondoan. Ostera, 48 dira behin betiko zerrenda osatzen duten izenak; hartara, Udalak informazio hori bidaliko dio proiektuaren sus-

tatzaileari, SAK kooperatibari, berak egin dezan egin beharreko zozketa.

Urdulizen eraikiko dituzten 37 etxebizitza tasatuen prezioa 156.000 euro eta 203.000 euro artekoa izango da, etxebizitzaren tipologiaren arabera. Eta horiek denak hartuko dituen eraikinaren partzelak sarbidea Iparralde eta Goieta kaleetatik izango duela jakinarazi dute proiektuaren arduradunek. ◀

BGPk Plentzia eta Urdulizko trenbidea hobetuko du

Bizkaiko Garraio Partzuergoak (BGP) Urduliz eta Plentzia arteko trenbidearen kilometro bat egokitzeko lanak hasi ditu. Hori egiteko 557.893 euroko aurrekontua du, eta, aurreratu dutenez, lanak geltokia zabaldu baino lehenago amaituko dituzte, apirilean. Hala, bidearen zati bat berritu eta Plentziako bigarren nasa hobetuko dute. Azaldu dutenez, lan horiekaz bidearen segurtasuna hobetuko dute. ◀

Udalerrian TAO sistema ezartzeko ikerketa, martxan

Javier Bilbao alkateak jakinarazi duenez, udalerrian TAO sistema ezartzeko ikerketa martxan dago. Azaldu duenez, txosten guztiak ikertu behar dituzte oraindino, hartu beharreko erabakia hartu baino lehenago. Baieztatu duenez, horren denaren helburua da trafikoa erraztea, «udalerriko auzokideak arazoak ekiditeko asmoz». Horren harira, prozesu parte-hartzaile egingo dutela aurreratu du. ◀



Idazlea izateaz gainera, Euskal Filologian doktorea, Fonologian espezializatua, eta EHUn irakaslea ere bada Lourdes Oñederra Olaizola. © EREIN

Hurrengo ekitaldiak

Otsailak 18, zapatua

19:00 Karlos Aretxabaleta, Mikel Sebasten Manso eta Jon Saez Amorrortu egileen *Hitz margotuak* liburuaren aurkezpena, bertso-saio poetikoa eta lurcha, Algortako Azebarri kultur elkartearen.

Otsailak 21, martitzena

19:00 *Contraviaje: de Nueva York a Gernika, pasando por Berlín* (Ekin argitaletxea) aurkeztuko du Arantzazu Ametzagak, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean.

19:30 Nieves Concostrinaren *Antonia* gaztelaniazko liburuaren gaineko berbaldia, Astrabuduko Josu Murueta kultur etxean.

Otsailak 23, eguna

19:00 Patxi Larrionen *Feriatzaileak* nobelaren gaineko elkarrizketa, Sopelako Kurtzio kultur etxean.

19:30 Lourdes Oñederrak *Intemperies (babes bila)* bere lana berabide izango du Algortako Villamonte kaleko kultur etxean, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoan.

Liburuak, aukeran

Hiru egunetan bost liburu ezagutzeko aukera eskainiko dute eskualdeko irakurzaleen taldeek, kultur elkarteek eta kultur etxeeek. Liburuon artetik hiru euskarazkoak dira.

Uribe Kostako literaturazaleek egundoko asteaz gozatzeko aukera izango dute: zapatutik eta martitzenera bitartean, bost aukera izango dituzte aurrez aukeratutako liburuetan sakontzeko eta zenbait egile ezagutzeko.

Lehenengo hitzordua Azebarri kultur elkarteak ipini du, txokoan bertan. Zapatuan, *Hitz margotuak* olerki-li-

buruaren aurkezpenagaz batera, bertso-saio poetikoaz eta lunchaz gozatu ahal izango da. Karlos Aretxabaleta, Mikel Sebasten Manso eta Jon Saez Amorrorturen lana da *Hitz margotuak*; bizkaiera eta galdutako Erronkariko euskalkia erabili dituzte idatzitako 40 olerki ilustratuetan.

Martitzenean, oster, literatura-saio bi izango dira eskualdean. Alde

batetik, *Contraviaje: de Nueva York a Gernika, pasando por Berlín* liburuaren aurkeztuko du Arantzazu Ametzaga idazleak berak, Algortako Villamonte kaleko kultur etxean. Bingen Amezaga idazle eta zinegotzi algortarraren alaba da sortzailea eta Argentinako Ekin argitaletxeagaz kaleratu du lana; Jose Antonio Agirre lehendakariaren ihesean oinarritu du liburuaren. Beste alde batetik, Nieves Concostrina kazetari madrildarraren *Antonia* lanaren gainean berba egingo dute Astrabuduko irakurle-klubean; gerraren osteko miseria bizi zuen belaunaldiaren erre-

tratua egin du Concostrinak, benetako historia bat oinarri hartuta.

Eguenean ere, beste liburu biren artean erabaki behar izango dute literaturazaleek. Sopelan, Patxi Larrionen *Feriatzaileak* izango dute berbagai. *Patton* filmaren erroldajearen kokatuko gaitu egileak, Urbanen eta Iruñean, anbizio eta traizioaren kontakizun bizi batean. Algortan, oster, Lourdes Oñederra idazleak erantzungo die *Intemperies (babes bila)* bere lanaren gainean zaleek egingo dizkiten galderei. Egizuk ipini du hitzordu hori, Uribe Kostako Irakurzaleen Txokoaren barruan. ◀

Emakumeen begiradak, erakusketa kolektiboa

Plentziako Udaleko Kultura eta Berdintasun Saila *Emakumeen begiradak* erakusketa antolatzen dabil, bosgarren aldiz. Erakusketa hori kokatu dute martxoaren 8ko Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira antolatuko diren jardueren artean. Horren bidez bultzatu gura dute hainbat artistek egindako margolan- edo argazki-lanen erakustaldi kolektiboa, emakumea gai nagusitzat hartuta. Horren helburua sormena bultzatzea da, «sexu arrazoiengatik sortzen den bazterkerari lotutako kontzeptu eta estereotipoak aldatu edo horien gaineko gogoetei bide eman gura diote sorme-



Aurten 5. aldiz egingo dute ekimena. © PTB

na landuz», udal-iturriek azaldu duten legez, «parte-hartzearen eremu horren bitartez, hausnarketa, elkarrizketa eta adierazpena» sustatzeko. ◀

info+: 946 775 541 / kultura@plentzia.eus

Getxo Moda ekimenaren diseinatzailer gazteen lehiaketan izena emateko aukera dago

Maiatzaren 1etik 5era izango da Getxo Modaren 32. ekitaldia. Ekimenaren helburua da «gure udalerria moda-erreferente bihurtzea eta lehiaketan parte hartzen duten Getxoko modaren, osagarrien eta estilismo-entresen sektoreetako establezimenduak sustatzea». Aurten, Diseinatzailer Berrien Lehiaketaren 14. edizioa izango da. Lehiaketan parte hartuko duten diseinatzailer berrietatik, 10 aukeratuko ditu epaimahai aditu batek, ibiltokian beren bilduma aurkez dezaten, eta bati emango diote Getxo Galanta beka. ◀

info+: 946 532 134
concursogetxomoda@gmail.com

Tukutu Market egingo dute domeka honetan, Getxo inguruko Utopian kultur topalekuan

Domekan, hilaren 19an, Tukutu Market izeneko azoka prestatuko du Utopianek, Getxoko kultur topalekuak. Egitasmoaren helburua da «kontsumo iraunkorra sustatzea eta arteagaz batzea», Utopianeko kideek azaldu dutenez. Merkatua goizeko 11:00etan zabalduko da, Utopianen lokalean bertan, Errotatxu industrialdean. Arrastiko 03:00ak arte, bertan izango dira salgai zilar-artisautza, larruzko osagarriak, momentuan bertan egingo dituzten karikaturak, pertsonalizatutako arropa, zura, egokitutako opariak, beira-aleak, kamisetak eta abarrak. Gainera, zenbait tailer ere egingo dira. ◀



2017ko otsailaren 16tik otsailaren 22ra arte

Gonçalvesek eta Tripsek kontrabaxua eta gitarra baino ez dituzte behar oholtzara igotzeko. © DEAD COMBO



LEIOA

Dead Combo bikotea: fadoa eta bluesa nahastuz

Musika Gertu zikloaren barruan, Dead Combo bikote portugaldarrak kontzertua eskainiko du, Kultur Leioako edaritegian, bariku honetan, otsailaren 17an. Pedro Gonçalves (gitarra, kontrabaxua eta ahotsa) eta Tó Trips (gitarra) musikariek 21:00etatik aurrera joko dute; sarrerak 5-10 euroan daude salgai. Tajo ibaia, Lisboa hiria, Mediterraneo itsasoa, Afrika ideali-

zatu bat edo Amerikako basamortua berbabide dituzte euren abesfietan Dead Combokoek. Adituek diotenez, rock´n´rollaren indarrak kutsatuta, «urteetako musika lasaia» egiten dute; kontinenteak zeharkatzen dituzte, fadoa eta bluesa nahastuz. Kultur Leioako arduradunen arabera, «huts egin ezin daitekeen saio» bihurtu dira bertoko edaritegian egi-

ten diren formatu txikiko kontzertuak; 8o lagun baino ez dira sartzen aretoan. Ekainera arteko egitarauari dagokionez, martxoaren 17an izango da Musika Gertu zikloaren azken eko emanaldia; bariku horretan, Clara Peya pianista kataluniarrek joko du. Betiko legez, kontzertua 21:00etan izango da; sarrerak 5-10 euroan egongo dira salmentan. ▼

ANTZERKIA

OTSAILAK 16, EGUENA

Ipuinaren Ordua

18:00 | **Gobelako haur-liburutegia** | **Getxo**
Mari Olas ipuin-kontalariagaz. 5 eta 9 urte arteko umeentzat. Euskaraz. Sarrera, doan.

Jainko basatia

20:00 | **Altzagako azoka zaharra** | **Erandio**
Antzerki EguEnak ekimena. Txalo Produktzioak taldeagaz. Euskaraz. Sarrera, doan.

OTSAILAK 18, ZAPATUA

El regreso de Patxi

21:00 | **Kultur etxea** | **Urduliz**
Umore Gaua. Gorka Aginagaldegaz. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 6 euro.

OTSAILAK 19, DOMEKA

La inspectora

19:00 | **Astrabuduko kultur etxea** | **Erandio**
Kalamua antzerki-taldeagaz. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

AZOKAK

OTSAILAK 19, DOMEKA

Tukutu Market

11:00-15:00 | **Utopian gunea** | **Getxo**
Batetik, artisautza-postuak egongo dira. Bestalde, txalaparta, makillajea, kosmetika naturala, agroekologia eta sabelaren dantza ikasteko tailerrak egongo dira. Ikastaroetan izena emateko: 944 303 194.

BERBALDIAK

OTSAILAK 16, EGUENA

Artes subversivas para cultivar jardines

19:45 | **Algortako Kasinoa** | **Getxo**
Teresa Mouréren liburuaren gainean berba egingo dute. Sarrera, doan.

OTSAILAK 18, ZAPATUA

Hitz margotuak liburuaren aurkezpena

19:00 | **Azebarri kultur elkartea** | **Getxo**
Berto-saio poetikoa eta luncha ere egongo dira. Euskaraz. Sarrera, doan.

OTSAILAK 21, MARTITZENA

Contraviaje: de Nueva York a Gernika pasando por Berlín liburuaren aurkezpena

19:00 | **Algortako kultur etxea** | **Getxo**
Arantzazu Ametzaga idazleagaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

URBANUE II

Kultur Leioako erakusketa-gela | **Leioa**
Udane Juaristiren margolanak. Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

IKASTAROAK

OTSAILAK 18 ETA 19

Clown, dantza eta antzerki inprobisatua

Stay and Job egoitza | **Berango**
Berangoko Gazte Mahaiak antolatuta. PrincipiArte ekimenagaz. 12 eta 35 urte artekoentzat. Ordutegia: zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta domekan, 10:00etatik 14:00etara. Doan. Izen-ematea: 655 200 764.

OTSAILAK 21, MARTITZENA

Argazkilaritzaren-historia

19:30-21:00 | **Atxutegi kalea, 15** | **Erandio**
Astrabuduko Fotoclub taldeak antolatuta. Gaztelaniaz. Doan.

MUSIKA

OTSAILAK 16, EGUENA

Sinbanda pop-taldea

20:00 | **Glass taberna (Areeta)** | **Getxo**
Getxon Zuzenean zirkuitua. Sarrera, doan.

OTSAILAK 17, BARIKUA

Bilboko Kontserbatorioko ikasleen piano-entzunaldia

19:00 | **Astrabuduko kultur etxea** | **Erandio**
Erandioko Musika Eskolak antolatuta. Doan.

OTSAILAK 18, ZAPATUA

Gintonic rock-taldea

19:30 | **Areetako musika-eskola** | **Getxo**
Neguko Bidaia zikloa. Sarrera: 5 euro. Kontzertuaren ostean, mahai-ingurua egongo da, musikariakaz.

OTSAILAK 19, DOMEKA

Ernesto Chuliá musikaria eta tronpeta-ikasleak

12:00 | **Areetako musika-eskola** | **Getxo**
Andrés Isasi Musika Eskolak antolatuta. Doan.

Inprobisazio-saioa

19:30 | **El Comercio taberna (Areeta)** | **Getxo**
Andrés Isasi musika-eskolako jazz taldeagaz. Sarrera, doan.

TXANGOAK

OTSAILAK 16, EGUENA

Itzartu elkarateak
berbaldia egingo du

Gaur, eguena, otsailaren 16a, berbaldia antolatu du Itzartu emakume-elkarateak; *Crecimiento personal* y *liderazgo* izenburuagaz. Saioa Olga del Castillo antropologoak emango du, 18:00etan, Itzarturen egoitzan (Landa doktorea, 3). ◀

Bertsolari gazteen txapelketa, Algortan

Abra Saria jokaturko dute bariku honetan, hilaren 17an, Algortako La Ola jate-txean. Afaría 20:30ean izango da, baina horretan izena emateko epea martitzenean itxi zuten. Hala ere, horren ostean kantaturko dute sei bertsolari gaztek. ◀

Izaskun Mugikaren euskarazko ipuinak

Ibili alai ipuinetan blai izeneko ikuskizuna eskainiko du Izaskun Mugika ipuin-kontalariak, zapatu honetan, otsailaren 18an. Hitzordua 18:30ean ipini dute, Sertutxena eraikinean; sarrera, doan. Saioa 4 urtetik gorako umeentzat da. ◀



Aldatzen Laguntzen antzerki-taldearen sortzaileetako bat da Ion Martínez Esnaola Txiki.

Txikiren bakarrikzetak, Gorlizen

Ion Martínez Esnaola (Donostia, 1980) umorezko bakarrikzetak egiten dabil 2002tik; antzerki-munduan ere murgilduta dago. Oraingo honetan, *Barrez blai* ikuskizuna eskainiko du, Plentzia eta Gorlizko euskara agenda bateratuaren barruan. Ikusleak izango dira partaide nagusiak, saloan. ◀

Noiz: Otsailak 17, barikua.
Ordua: 19:30
Non: Sertutxena aretoa.
Sarrera: Doan.

1 Zure ekitaldiren bat hemen ikusi nahi baduzu, bi aukera dituzu:

1 Bidali informazioa helbide elektroniko honetara: hiruka@hiruka.eus

Antonia liburuaren aurkezpena
19:30 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Nieves Concostrina kazetari madrildarragaz. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

DEIALDIAK

OTSAILAK 18, ZAPATUA
Ibarbengoako parkingaren aurkako eguna
11:00 | San Nikolas plaza (Algorta) | Getxo
Hainbat jarduera egongo dira. Informazio gehiago: www.facebook.com/iosu.betirako

Neguko Garrantzibla
20:00 | Utopian sorkuntza-gunea | Getxo
Garrobi Getxoko artisten harrobiak antolatuta. Izen-ematea: info@garrobi.com

OTSAILAK 20, ASTELEHENA
Jaiak antolatatzeko bilera
18:00 | Kultur etxea | Gortiz
Gura duten denek parte har dezakete.

OTSAILAK 21, MARTITZENA
Altzagako jai-batzordearen bilera irekia
19:30 | Bekoa ikastetxea (Altzaga) | Erandio
Aurtengo San Agustín jaiak antolatzeko lehenengo herri-bilera egingo dute.

ERAKUSKETAK

OTSAILAREN 22ra ARTE
Pequeñas historias sin importancia
Algortako kultur etxea | Getxo
Lydia Jimeno Badiolaren artelanak. Astelehenetik zapatura. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 24ra ARTE
Teresa Beitiaren margolanak
Goñi Portal kultur etxea | Plentzia
Astelehenetik barikura. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 26ra ARTE
Euskal AkuaRELARIEN Elkartea
Torrene Aretoa (Algorta) | Getxo
Astelehenetik domekara. Sarrera, doan.

OTSAILAREN 28ra ARTE
Distantziak murrizten, errealitateak hurbiltzen
Algortako kultur etxea | Getxo
Zabalketa GKEren 25. urteurreneko argazki-erakusketa. Sarrera, doan.

Argazkilaritza-irteera
Gasteizera (arkitektura berria)
08:00 | Astrabuduko taxi-geltokia | Erandio
Arrastiko 02:00etan egongo dira bueltan. Informazio gehiago: 696 758 354

ZINEMA

OTSAILAK 17, BARIKUA
Tarde para la ira
21:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Zinema Kluba. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,90 euro.

OTSAILAK 18, ZAPATUA
Peter y el dragón
17:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

¡Canta!
17:30 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro. Otsailaren 19an ere emango dute, domekan.

Blinky Bill, el koala
18:00 | Kultur etxea | Urduliz
Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 3,50 euro.

El renacido
19:00 | Berango Antzokia | Berango
Filma 16 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Money monster
20:00 | Astrabuduko kultur etxea | Erandio
Gaztelaniaz. Sarrera: 2 euro.

OTSAILAK 19, DOMEKA
El pincel mágico
17:00 | Areetako musika-eskola | Getxo
Igandeko Haur Zinea. Denontzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,10 euro.

Zootropolis
18:00 | Berango Antzokia | Berango
Denontzako animazio-filma. Gaztelaniaz. Sarrera, doan.

Silencio
20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Filma 16 urtetik gorakoentzat da. Gaztelaniaz. Sarrera: 4,50 euro. Otsailaren 20an ere emango dute, astelehenean.

OTSAILAK 21, MARTITZENA
Kiki, el amor se hace
20:00 | Kultur Leioako entzungela | Leioa
Perseo zineforuma. 16 urtetik gorakoentzat. Gaztelaniaz. Sarrera: 2,50 euro.

2 www.hiruka.eus atarian Komunitateko kide egin eta zuk zeuk sartu ahalko duzu ekitaldia Agenda atalean.



Baserritar harroputz eta ahohandi baten papera du Gorka Aginagaldek.

Patxiren harropuzkeriak

Gorka Aginagalde aktoreak *El regreso de Patxi* ikuskizuna eskainiko du zapatuan, Urdulizen.

Esther Gimenoaren eta Manuel Burqueren saioen ostean, Gorka Aginagaldek (Gasteiz, 1966) parte hartuko du Urdulizko Umore Gauak zikloan, zapatu honetan, otsailaren 18an. Aktore,

umorista eta abeslari gasteiztarak *El regreso de Patxi* ikuskizuna eskainiko du, 21:00etan, kultur etxean; sarrerak 6 euroan salgai daude. Antolatzaileek ohartarazi dutenez, 16 urtetik gorakoentzako saioa da zapatu gauekoa.

Antzezlan horren protagonista Patxi Arrigagorritxerriberrigoitiabeitia da; baserritar harroputz eta ahohandi bat, eta atsegin du jatea, edatea eta tabernetan errondak ordaintzea.

Pertsonaia hori antzeztuko duen Gorka Aginagalde aktore ezaguna da. Antzerkian jarduteaz gainera, telebistan ere lan egin du: barbarako, *Ana y los 7*, *El comisario*, *Los hombres de*

Paco eta *Doctor Mateo* telesailetan parte hartu du. Zinemari dagokionez, hainbat filmetan jardun du: *Airbag* (Juanma Bajo Ulloa, 1997), *Muertos de risa* (Álex de la Iglesia, 1999), *Año mariano* (Karra Elejalde, 2000), *La comunidad* (Álex de la Iglesia, 2000), *Berri Ona* (Helena Taberna, 2008), *Sukalde kontuak* (Aitzpea Goenaga, 2009) eta *Rey gitano* (Juanma Bajo Ulloa, 2015) pelikuletan, besteak beste. Gaur egun, Antena 3 telebista-kateko *Allí abajo* telesailan dihardu. Bere trebakuntzari dagokionez, Gasteizko Arte Eszenikoen Tailerrean ikasi zuen Aginagaldek, 1988tik eta 1990era bitartean. Gero, Antón Fontek zuzendutako inprobisazio-ikastaro bat egin zuen, eta Álex Angulok ematen zuen interpretaziozko beste bat. Hurrengo urtean, 1991n, gorputz-adierazpena landu zuen Eric Thamersegaz; jarraian, akrobazia ikasi zuen Joan Serratsegaz; eta, azkenik, clowna, Beti Tobíasegaz. 1992an, interpretazioaren inguruko jakintza eta praktika izateko, horren inguruko ikastaroa ere egin zuen Oscar Molinagaz. Bestalde, 1990etik 1993ra artean, Bartzelonako El Timbal antzerki-eskolan ibili zen. 1995ean, lehenengo aldiz murgildu zen zinema-munduan, Roberto Cuestaren *Action Painting* film laburrean, hain zuzen ere. Eta ordutik aurrera, eten barik behar egin du bai zinemari, bai telebistari, baita antzerkian ere. Beragaz hitzordua, Urdulizen, zapatuan. ◀

Hitza emanda



Ohiturak

Zezeilean sartuta agenda biztu jat: Aratosteak datoz, atxineko ohiturak... Gizaki ta lurraren arteko baturak dakarsku elizaren aurreko mundu bat!



AITOR ESTEBAN ETXEBARRIA
Bertsolari itzubaltzetarra

HIRUKAK proposatutako hitz baten harira, ALBEko kideek bertso bat jarriko digute atal honetan, astero-astero.



Aratusteen inguruko ikastaro bi egingo dituzte Algortako Gauegun gaztelekuan, martxoan

Aratusteak direla eta, martxoaren 3an eta 4an ikastaro bana egingo dute, euskaraz, Algortako Gauegun gaztelekuan; makillajea eta karakterizazioa erakutsiko diete 11 eta 17 urte arteko gazteei. Getxoko Udalaren Gazteria Sailak antolatutako tailer bi horiek doakoak dira. Aipatutako jarduera horietan hainbat gai jorratuko dituzte, barbarako: lehenengo egunean, efektu bereziak eta karakterizazioa (zauriak, ebakiak, erredurak, urratuak, tiroak...) landuko dituzte. Hurrengo egunean, oster, makillaje fantastikoa (izaki mitologikoak, maitagarriak, animaliak, pertsonaia desberdinak...) oinarritzat hartuko dituzte. Ordutegia, egun bietan, 17:00etatik 22:00etara izango da. Daborduko, ikastaroetan izena eman daiteke, helbide elektronikoaren bidez, telefonoz edo Gazte Bulegoan bertan (Tangora Etxea, Algortako etorbidea, 98). ◀

info+: gaztebulegoa@getxo.eus / 944 660 353

Inprobisatzen ikasteko tailerrak, Berangon

Clowna izaten, dantzan eta antzerki inprobisatuan trebatzeko ikastaroak egingo dituzte otsailaren 18an eta 19an, Stay and Job egoitzan, Berangoko Gazte Mahaiak antolatuta; PrincipiArte ekimena arduratuko da eskolak emateaz. Tailerren iraupen osoa 12 ordukoa izango da: zapatuan, 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara; eta domekan, 10:00etatik 14:00etara. Horretan parte hartu gura dutenek 12 eta 35 urte arteko adina izan beharko dute. Horrez gainera, Berango udalerrian erroldatuta egon beharko dute. Halere, antolatzaileek jakinarazi dute «malguak» izango direla eskatzen diren baldintzei dagokionez. Horrenbestez, baldintza horietakoren bat betetzen ez dutenek eurakaz harremanetan ipini beharko dute. Tailerrak doakoak dira eta saio denak emango ditu PrincipiArteren kidea den Silvia Estarreadok. Antolatzaileek adierazi dutenez, ekimen ho-



Jarduera 12 eta 35 urte artekoentzat da.

rren helburua da pailazo berrien agerpena, «norbanakoaren barneraketan eta askatasunean oinarritutako bidaia pertsonala eginez». Hori lortzeko, dantza eta antzerkigintza inprobisatuak erabiliko dituzte baliabidetzat.

Orokorrean, artearen adierazpen ezberdinak azaleratzeko, erakusteko eta sustatzeko guneak sortu gura ditu PrincipiArte ekimenak; bereziki umeak landu gura dituzte emozioak, pertsona legez haz daitezen. ◀

info+: principiararte.org

«Musika-mota ezberdinak landuz, deigarriagoa izatea bilatu dugu»

Garrasika taldea

zuzenean ikusteko eta entzuteko aukera egongo da aurtengo uztailaren 29an, Algortako jaietan.

TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO

Garrasika taldea 2009. urtean sortu zuten Algortako bost gaztek. Daborduko maketa eta disko bana kaleratu dituzte; punka, Oi!a eta metal-doinuak nahasten dituzte beraien abestietan. Boskoteak ahots bortitzez abesten die bizitzari, lagunei zein Euskal Herriko egoerei, aldarrikatzeko arma gisa eta ondo pasatzeko asmoz, zelan ez. Aurtengoari dagokionez, hitzartuta dituzte emanaldi bi: martxoan, Añorgako (Gipuzkoa) gaztetxean joko dute; uztailaren 29an, Algortako jaietan. Aurrera begira ez dute proiektu zehatzik, abestiak sortzen jarraitzeko asmoa bai.

Zelan sortu zen Garrasika musika-taldearen proiektua?

Unai Ortiz: Proiektuari buelta asko eman ostean sortu zen taldea, 2009. urtean, beren-beregi. Aurrerago, taldekideen barne istiluak zirela eta, mugimendu asko egon ziren, eta ni sartu nintzen, beste gitarra-jolearekin batera. Horrela proiektu berri bat hasi genuen: Garrasika.

Zer bilatzen zenuten?

Koldo Ribero: Ondo pasatzea eta musikaz gozatzea. Azkenean hainbat talde ditugu gustuko eta saiatu ginen zeozer egiten; eta hemen gaude!

Zergatik Garrasika izena?

K.R.: Eskola garaian, idatz-liburuarekin geundela, liburuak dituen hitz mordoaren artean galduta, gelako lagun batek proposatu zigun... Kar, kar, kar (biak barrezka).

Zelakoa izan da diskoa kaleratzeko prozesu guztia?

U.O.: Diskoa Birdtrouble zigiluarekin egin dugu, eta Berangon grabatu, Grabasoniken, Ibanen laguntzarekin.

Diskoa ateratzeko ez zenuten autogestioa bilatu, zer dela eta?

K.R.: Hasteko, grabatzen ez dakigulako... Horrez gainera, maketarekin esperientzia txarra eduki genuen... Maketa Basauriko Gaztetxean graba-



Algortako Garrasika taldearen kideak, entsegu-egun batean. GARRASIKA

tu genuen, eta kopiak guk geuk egin genituen; azkenean, lan handia izan zen, eta ez zen batere ondo geratu. Zabalatzeko orduan ere, arazoak eduki genituen... Orokorrean, apur bat «kultura» izan zen dena; Bidezabaleko kopia-denda batera joan ginen, eta han egin genuen dena; ordu asko eman genituen guztia ondo atera zedin, baina... Ez genuen diru askorik inbertitu, baina, «kristo bat» da...



Taldekideak

- Unai Ortiz (gitarra), Mikel Ruiz (gitarra), Koldo Ribero (baxua), Pablo Covo (bateria eta Endika Berrueta (abeslaria).

Diskoak

- *Bidea ez da bukatu* (2016)
- *Indarrak batuta* (2012)

Hurrengo kontzertuak

- Martxoan, Añorgan.
- Uztailaren 29an, Algortako jaietan.

Erreferentzia 5 talde

- Fridays Crew, Eskorbuto, Orreaga 778, Non Servium eta Far From Finished.

Non lor edo eros dezakegu zuen CDa?

K.R.: Garrasika Gsk facebookeko orrialdera mezu bat bidaliz edo, bestela, Algortako Aterki tabernan ere bai.

Zelan sortzen dituzue kantak? Norbaitek zehazki ala denon artean?

U.O.: Denon artean; azkenean, batek ideia bat dauka, probatu egiten du, eta taldearen entsegu batera eramaten du. Beste batek ideia horri beste zeozer gehitzen dio edo moldaketak egiten dizkio, eta, apurka osatzen ditugu. Letren kasuan ere, prozesua berdina da.

K.R.: Egia da musika-estilo oso desberdinak gustatzen zaizkigula: metaleroak, oso punkiak, hardcorea... Baina horrek jende gehiagorengana heltzea ahalbidetzen digu.

Zuen abestiek zeren kutsua daukate? Zeri abesten diozue?

K.R.: Denetariko kontuei... Gure esperientziak edo gustatuko litzaizkigukeen esperientziak kontatzen ditugu; gainera, aldarrikapen-abestiak ere baditugu, gaur egun Euskal Herriak bizi duen arazoa gure ikuspuntutik gizarteratzen ahalegintzen gara.

Zelan ikusten duzue musikaren egoera zuen herrian? Jotzeko edo entseguetarako lokalik, kontzertuak antolatzeko aukerarik badago?

Gaur egun nahiko hilda, egia esate-

ko... Talde batzuk topera dabilta, Hexus eta Mad Skins, esaterako; baina, egon diren talde mordoarekin alderatuta, apur bat hilda... Orain, berriz, badirudi martxan ipini dela Txorimalo Gaztetxeko musika-lokala berreskuratzeke gazteen taldetxo bat... Lokala edukitzeak herriko jendea taldea sortzera erakar lezake, eta, badirudi, bide onean doazela, baina ez dakit... Ea lokalak aurrera egiten duen eta martxa hartzen duen.

Gauetan zein musikak, girok, mugiarazten zaituztete?

Momentuaren arabera... Parrandan irteten garenean tabernetan egoten gara eta une horretan ipintzen dutenak mugiarazten gaitu. Ez digu ardura teknoa, reggaea, punka, ska-musika zein euskal musika entzun, berdin zaitu. Ez gara mugiarazten musika konkretu batengatik.

Proiektu berririk hurbil?

U.O.: Epe laburrean proiekturik ez daukagu; baina, abestiak apurka-apurka egiten joateko asmoa daukagu. Erdi argi daukaguna da ez dugula atara nahi disko bat orain arte ezagutzen dugun formato tradizionalen. Abestiak sortzen joango gara eta gutxinaka youtubera edo horrelako plataformetara igotzen joango gara.

info+: Facebook-en: Garrasika Gsk

«Ez dago munduan gauza okerragorik, inork ez ikustea baino»

Bea Sever Egaña algortarra Chrysallis Euskal Herria elkarteko kidea da. Transexualitate-egoeran dauden umeen gurasoek osatzen dute elkarte, eta euren seme-alaben zoriontasuna dute helburu. Horrez gainera, jendartean bulba duten mutilak eta zakila duten neskak badaudela aldarrikatu gura dute, eta horren inguruko errealitatea ezagutarazi. Hori dena azaltzeko zortzi hizkuntzatarata itzulitako materiala sortu dute, mundu osoan erreferentea izatea lortu duen baliabidea.



TESTUA: IKER RINCON MORENO / ARGAZKIA: HODEI TORRES

Azalduko zeniguke ondo zer den transexualitatea?

Pertsona bat jaiotzen denean sexu bat esleitzen zaio; baina, batzuetan, hori ez dator bat bere benetako sexuarekin. Benetako sexuaz ari garenean, bere sexu-identitateaz ari gara. Kasu horiek ematen direnean, transexualitate-egoera baten aurrean gaudela diogu.

Chrysallisetik 'transexual' berba ez erabiltzea gomendatzen duzue. Zer dela eta?

Gai honi buruz ari garenean, guk beti nahiago dugu esatea bulba daukan mutikoa edo zakila duen neskoa. Halere, ulertzen dugu askotan hitz hori erabiltzeko beharra dagoela gaia jorratzeko. Adjektibo moduan askotan erabili beharko da 'transexual' hitza, baina, ez dugu nahi etiketa bezala erabiltzea. Garai batean, halako prozesu bat egin zen ezinduen kasuan ere; hasieran 'elbarrituak' erabiltzen genuen, baina, azkenean, 'ezintasuna daukatenak' darabilgu. Gu ere garapen horretan gaude, bide ez iraingarriak bilatzen.

Zein da Chrysallis elkartearen helburua?

Guraso-talde bat gara. Transexualitate-egoera baten aurrean zaudenean, ikastetxera edo medikuarenera jo ohi dugu, baina inork ere ez daki ezer. Ez dago nora jotzerik, ez dago inolako erakunderik eta LGTB kolektibo askotan ere ez dakite ezer haurren kasuei buruz. Ezagutza falta handia dago gai honen inguruan. Hori dela eta, guraso-talde bat bildu ginen. Gure haurren zoriontasuna dugu denok helburu, eta bide horretan, aldarrikapenak entzunarazteko eta familiaz familia-

ko laguntza emateko lana egiten dugu. Askotan guk geuk irakatsi behar diegu medikuei eta irakasleei. Gu ari gara ezagutza hori zabaltzen eta erakundeei eskatzen familientzako arreta-zentro bat.

“**OMEk patologia-zerrendatik kendu du transexualitatea; baina, identitate-trastorno bezala mantenduko du**”

Orain dela gutxira arte askok gaixotasuntzat jotzen zituzten honelako kasuak...

Bai, duela gutxira arte, eta oraindik ere bai! Osasunaren Mundu Erakundeak patologia-zerrendatik aterako duela erabaki du, baina identitate-trastorno bezala mantenduko du. Astiro, baina, aurrera goaz. Izendapen horrek arazoak sortzen ditu gure haurren egunerokotasunean. Psikiatria Atalean dago Gurutzeta ospitaleko Genero Identitate Unitatea, eta, psikiatra bat da hurrei harrera egiten dien lehenengo pertsona. Katalunian, aldiz, patologia bezala kentzea lortu da, eta ez dago psikiatrarik prozesuan. Izan ere, gure haurrek behar duten bakarra da, nahi izanez gero, endokrinologiako tratamendu bat, hormonak hartzeko.

Burua oso ondo dute, ume normalak dira. Ez dute inolako gaixotasunik, hortaz, ez dauka inolako zentzurik horrelako tratamendu bat trastornotzat tratatzea.

Sexuazioa norabide bikoa dela aipatzen duzue...

Sexologiak dioenez, sexu-identitatea jaio aurretik hasten da sortzen eta gure bizitza osoan zehar gartzen doa. Gure haurrek eurek esaten dute: ni neska naiz; ni mutila naiz. Horixe da eurek adierazten digutena. Militantzia baino gehiago, gure erronka da umeak zoriontsuak izatea, eta, euren bidea hori bada, kasu egin behar diegu. Zer neska mota edo zer mutil mota izango diren beste borroka bat da. Azken finean, guk askotarikotasuna aldarrikatzen dugu eta gure haurrak askotarikotasun horren adibide dira. Gero, genero-rolen kontuan sartuz gero, beste kontu bat da. Gauza bat da sentitzen duzun sexu-identitatea, eta beste bat zelan munduratzen zaren. Hori oso lotuta dago gizartearen presioarekin. Adibidez, zakila duten neskek joera dute arrosaz janztera, baina, gero, onartu dituztenean, lasaitu eta beste kolore batez janzten dira. Aurreko batean bulba duen mutiko batek esan zuen dantzatzea oso gustuko zuela, baina, ez zuela egiten neska zela pentsatuko zutenari beldurrez. Azken finean, muturretara jo behar dute euren burua aldarrikatzeko. Gizarteak berak ez dituela ikusten sumatzen dute, baina *transito* egoera hori gainditzten dutenean, euren bidea egin dezakete. Hor ikusten da zein den gizartearen presioa; ezin dute izan nahi duten neska edo mutila.



Genitalen arabera egozten zaio ume bati sexu bat...

Hala da, jaiotzean genitalei begira esleitzen da sexua; gehienetan, asmatzen da, ez da metodo txarra. Hala ere, batzuetan ez da asmatzen. Lehen, ikerketek esaten zuten 100.000 pertsonatik batean okertzen zirela; azken ikerketek, berriz, 1.000 pertsonatik batean. Dena den, kontua ez da okertzea; hori gerta daiteke; arazoa da, behin okertuta, umeak ez entzutea. Umeak bere identitatea aldarrikatzen duenean, gogorra da; baina, entzuten eta laguntzen ikastea beharrezkoa da. Ikerketek diote, laguntza jaso duten eta onartu dituzten haur transexualen kasuan, nerabezaroa zoriontsua eta ongizate-maila beste guztien berdina dela. Onartzen ez dituztenen artean, suizidio-saiakeren tasa izugarria da, %42k jotzen du horretara; gizartean %1,2 izan ohi da. Hortaz, gure haurrak onartzeak edo ez zer esan nahi du? Ia-ia hil ala biziko kontua dela.

Zer arazo sor dakioke ume bati bere sexu-identitatea aitortzen ez bazaio, edo hori ukatzean?

Pertsonak garen heinean, bakoitzak modu batean edo bestean jokatu du. Batzuetan, umeak triste egoten dira, komunikatzeko arazoak izaten dituzte, baita harremanak sortzeko ere... Bestalde, beste batzuetan, euren sexu-identitatea aldarrikatzen dute, behin eta berriro; beste batzuk, aldiz, isildu egiten dira adin batera heltzean. Bakoitzak bere izateko era du. Aldaketa oso handia da ume batek transitoa igaro eta gero; hilabete pare bat pasa ondoren, askoz alaiagoa eta zoriontsuagoa izan ohi da.

Zeri deitzen diozue *transitoa*?

Guk *transito* soziala esaten diogu behin umea entzun eta onartu dugunean, laguntzen diogunean bere bidean, eta bera den modukoa agertzen denean gizar-

“Nork gogoratzen du noiz jakin zuen neska edo mutila zela? Betidanik jakin izan dugu hori, jaio ginen momentutik”

tearen aurrean. Hor hasten da familiarentzat gogorrena: familia osoari kontatzea, azaltzea kanpoko jendeari, hurbileko ezagunei...

Behin sexu-identitatea eta nortasuna onartu ondoren, ebakuntzara jo ohi da?

Duela hainbat urte sexu-ebakuntza beharrezkoa zen nortasun-agirian sexu-aipamena aldatzeko. Sarraskiak egiten zituzten; peritu batek ikusi behar zuen zure genitalek bat egiten zutela onartutako sexuarekin, bestela, ezinezkoa zen agiria aldatzea. Horrek norberaren eskubideak urratzeaz gain, ez dauka inolako zentzurik; zorionez, gaur egun ez da beharrezkoa hori egitea. Dena den, esan beharra dago, kasu

askotan, obsesioa izan dela, adibidez, zakila izatea. Txikitatik esaten badizute ezin zarela mutila izan zakilik ez duzulako, orduan horixe eduki nahi izango duzu, nahiz eta estetiko baina ez izan. Halere, esan beharra dago ez direla egon uste den bezainbeste kasu, eta, gaur egun, gero eta gutxiago ematen dira. Gure borroketako bat da euren gorputzak maitatzea, eta egia esateko, txikitatik onartuak direnen artean, pozik bizi dira euren gorputzekin.

Hala ere, hormonazko tratamenduak dituzte kasu horietako neska-mutilek, ezta?

Bai, gure haurrek duten abantaila bat da nerabezaroan baino lehen blokeatzaileak jasotzeko aukera dutela. Hartara, bulba duen mutiko bati inoiz ez zaizkio bularrak haziko, ezta hilerokoa etorriko; hormona-jarioak blokeatuko zaizkio. Eta alderantziz, berdin; zakila duten neskek ez dute bizarririk izango, eta ez zaie ahotsa aldatuko. Gero, 15-16 urterekin, nahi izanez gero, hormonak jasoko dituzte, artifizialki. Hala, genitalak kenduta, euren sexuari dagokion guztia izango dute eskuragarri.

Zenbat kasu daude Euskal Herrian?

Suposatzen da 350-400 kasu inguru egon behar dutela, 18 urtetik beherakoen artean. Gaur egun, Chrysallisen 40 familia inguru gaude; duela urtebete taldea osatu genuenean, ordea, zortzi bakarrik ginen.

Orokorrean, noiz jakin dezake ume batek neskatoa edo mutikoa dela?

Nork gogoratzen du noiz jakin zuen neska edo mutila zela? Inork ere ez. Betidanik jakin izan dugu. Kasu hauetan, bizpahiru urteko haurrek dagoeneko argi daukate zein den euren sexu-identitatea; eta ez dute ulertzen zergatik besteek ez duten ikusten. Orokorrean, hitz egiten hasten direnean hasten dira gauza horiek adierazten.

Elkarteak kartelak kaleratu zituen orain dela gutxi; eztabaida sutsua sortu dute... Horren albotik, Tomas Moro elkarte katolikoak salaketa aurkeztu zuen elkartearen aurka, adingabekoak galbideratzea egotzita. Zer deritzozu horri guzti?

Bagenekien deigarria izango zela, genitalak agertzen zirelako; baina, ez genuen espero halako iskanbilarik sortzea. Ez dugu polemika horretan sartu nahi izan. Tomas Moro elkarte ultrakatolikoa da, oso talde txikia. Gizartearen gehiengoa, aldiz, gure alde agertu da, eta erakunde eta alderdi politiko askoren babesa jaso dugu. Gizartea prest dago errealitate hau ezagutzeko. Are gehiago, elkarte horrek salaketa aurkeztu zuen, bai, baina, fiskaltzak ez zuen hori ikertu, eta atzera bota zuen.

Espainiar Estatua garatuena da transexualitatearen inguruan mundu-mailan, ikerketa baten arabera. Chrysallis Euskal Herriatik lan handia egiten ari gara eta gauza askotan aitzindariak gara hemen. EAEko eta Nafarroako legeak oso aurreratuak dira. Nafarroan egin den Hezkuntza-protokoloa eta egiten ari diren Osasun-protokoloa oso onak dira. Hortaz, aitzindariak gara, eta bidea egiten ari gara. Hori dena mundura zabaltzen ari da eta munduko puntu guztietatik deiak jasotzen ditugu. Izan ere, argitaratu dugun hezkuntzarako materiala zortzi hizkuntzatara itzuli dugu, webgunean dago eskuragarri nahi duenarentzat eta dagoeneko milaka eta milaka deskarga izan ditu horrek. ◀



Laukizko Gaztedi taldea nagusitu zen Altzagan. KARKARA

Emakumeen joko garbia

Erandioko sokatira-deman amarruak albiste izan ziren, joan den otsailaren 4an. Gizonezkoen goma gaineko finala bertan behera utzi zuten epaileek.

Sokatiraren historiara ez da pasatuko 2017ko otsailaren 4a; gutxienez, ez goma gaineko gizonezkoen kontu positibo legez. Erandioko Altzaga kiroldegian, egun horrek historia eredu-garri bakarra eman zuen: emakumezkoen 405 kiloko txapela jantzi zuten Gaztediko tiralariena, hirugarren eta azken jardunaldian irabazita; Ibarra-

ko eta Txantreako taldeak Laukizkoen atzetik geratu ziren. Postu berberak lortu dituzte hiru klubek Mungian, Idiazabalen eta Erandioko saioetan; denetan aurrena izan zen Gaztedi, bigarrena Ibarra eta azkena Txantrea.

Itsasgarria oinetakoetan

Gizonezkoek 640 kiloko finala zeukaten egun berean, Altzagako kirolde-

gian. Probarako sailkatu ziren Sokarri, Murueta A, Ibarra, Gaztedi, Beti-Gazte eta Zuraide. Demak hasi, hasi ziren; baina, epaileek kirol-saioa bertan behera utzi zuten, euren iritziz zenbait irregulartasun ikusi ondoren. Beren-beregi, hiru taldetako tiralariet oinetakoetan erabiltzerik ez dagoen produktu itsasgarri bat zeroatela nabarmendu zuten epaileek, eta ordura artekoak balio gabe uztea erabaki zuten. Ebazpena ez zen inoren gustukoa izan; batzuek ukatu egin zuten amarrutan ibili izana, eta besteek tranpetan ibilitakoak deskalifikatu eta fina-

la jokatzeari eskatu zuten. Hala, auzia diziplina-batzordearen epaile bakoarraren esku utzi zuen Euskal Herriko Herri Kirol Federazioak. Epaileak Murueta, Beti Gazte eta Zuraide taldeak zigortzea erabaki zuen. Horregatik, finala pasa den domekan Laukizko erre-pikatzea agindu zuen, Gaztedi, Sokarri eta Ibarra 640 kiloko txapelagatik lehia zitezen. Laukizkoen, Ibarra izan zen txapeladun, Sokarri eta Gaztediren aurretik. Bere aldetik, Muruetako taldeak salatu du Beti Gazte, Zuraide eta haiek «defentsarik egiteko asti barik» lotu zirela, babes barik. ◀

Barrikoztarrak, bikain, Bizkaiko Eskolakoan

Barrakako Abaroa tenis-taldea harro dago bere jokalariez; gorai-patu duenez, Bizkaiko Eskola Txapelketaren edizioan «lan bikaina» egin dute: «sei kategoriatatik bostetan parte hartu zuten gure ordezkariak, eta horietatik lau finalean egon dira, bosgarrenean finalerdietara heltzeaz gainera». Ane Duranak egindako erakustaldia nabarmendu du klubak. Abaroako kimu bakarrak bere mailan irabazi zuen, bere lehenengo urtean. Horretarako gainditu behar izan zituen Usune Sánchez, Paula López de Ipiña eta Leire Ortuzar, hurrenez hurren. Abaroako kirol-arduradunen us-



Ane Durana. © ABAROA

tez, Duranak «etorkizun oso oparoa du». Bestalde, Gaizko Rodríguez (benjamin-maila), Iñigo Uriarte (kimu-maila) eta Izan Ruiz del Valle (ume-maila) finalerara heldu ziren, eta bigarren postua lortu zuten. ◀

Bizkaiko tenis-lehia Jolasetan egingo da

Neguriko Jolaseta kirol-klubean jokatu da Bizkaiko Tenis Txapelketa, bariku honetan hasi eta otsailaren 26ra bitartean. Jolasetako iturriek baieztatu dutenez, bertako pistetan ikusi ahal izango dira emakumezkoen eta gizonezkoen norgehiagokak honako mailetan: 2007ra artea jaioetako benjaminak, 2003ra arteko umeak, eta 1999ra arteko gazteak. Neguriko klubak zabaldu duenez, norbanakoen txapelketa izango da, eta federatutako jokalariek bakarrik parte hartu ahal izango dute. Partidak 09:30etik aurrera jokatu dira aste-akabuen egunetan, eta 17:30ean aste-



Iratí Urbanejak iaz irabazi zuen ume mailan.

gunetan. Dema denen egitarau zehatza euren webgunean argitaratuko dute egun honetan. norgehiagokak epaitzeko arduraduna Carmen Ilarduya Jolasetako epailea izango da. ◀

Sopelako Duatloia, zapatuan



Iaz, Maite Arraizak eta Kepa Vallejak irabazi zuten. © ALBERTO AGUJETA - ETF

Datorren zapatuan, otsailaren 18an, duatloiagaz hitzordua izango du Sopelak. Bertan jokatu da 2017ko EAEko duatloi-zirkuituaren bigarren proba. Hamabigarren edizioa izango da aurtengoa, esprint-distantzia egingo da, eta Sopelako Hirubi triatloi-taldeak eta Euskadiko Triatloi Federazioak antolatuko dute. Irteera, helmuga eta boxak Sopelako udaletxearen ondoan egongo dira, Antonio Aretxabaleta plazan. Proba arrastiko 04:15ean hasiko da, emakumeen lasterketaz. Ordu laurden beranduago irtengo dira gizonak. Batzuek zein besteek korrikan 5,2 kilometro egin beharko dituzte, 20 kilometro bizikletaz, eta, amaitzeko, helmu-

gako marrara heldu aurretik, azken 2,5 kilometroko lasterketari oinez aurre egin beharko diote.

Zirkuituaren ezaugarriak

Oinezko saio bien ibilbide osoa herriko kaleetatik izango da. Lehenengo atalean, parte-hartzaileek itzuli bi eman behar izango dizkiote zirkuituari; bigarren, helmugara iritsi baino lehenago, beste itzuli bat eman beharko diote ibilbide berari. Bizikleta-saioan, eskualdeko zenbait herritatik pasatuko dira: Sopelatik irten, eta Barrika, Plentzia eta Urduliz atzean utzi ostean, Sopelara itzuliko dira. Probaren egunean eta bezperan, zirkulazioa eten egingo dute zenbait lekutan. ◀

Uribe Kosta, Euskadiko kros-txapelketetan, fin

Arin ibili ziren eskualdeko atletak aurreko aste-akabu bietan Bizkaian jokaturako Euskadiko kros-txapelketetan. Sopelako Munarri taldeak zilarrezko domina lortu zuen beterranoen taldekako proban; Berri-zen egin zuten balentria, pasa den domekan egindako distantzia laburreko eta beterranoen EAEko txapelketan. Domina jantzi zuten María Rosa Romerok, Inmaculada Ruizek, Loli Benítezek, Beñat Minayok eta Mónica Pintorek.

Getxo Atletismo Taldeak ere jaso zituen zilarrezko dominak, hurrengo kirolariak: Igor García, Alfonso Álvarez De Eulate, Juan Zalduondo,

Juan Pérez eta Kepa Herguedasi esker. Aurretik, otsailaren 5ean, Euskadiko Kros Txapelketa egin zen Sopuertan. Bertan, urrezkoa eskuratu zuen Miguel Abaituak; kadetea Erandioko Atletismo Eskolaren kidea da. Horrez gainera, eskola beste behin sartu zen podiumean, gazte-mailako taldekako proban, zilarrezkoa jasotzeko. Hara igo ziren Erandioko eskolaren Ekaitz Ruiz, Luís Abaitua, Eneko Quintero, Beñat Gonzalez eta Daniel Linares. Azkenik, Olaia Lekunberri atleta itzultzetarrek gazte-mailako taldekako brontzea lortu zuen Sopuertan, Durangaldeko Bidezabal klubagaz. ◀



Erandioko Atletismo Eskolaren gazte-taldea, Abaitua barik. © ERANDIOKO ATLETISMO ESKOLA

Leioa Mendi Taldea, urteurrena ospatzen

Bere 25. urteurrena ospatzen dabil Leioa Mendi Taldea honako hiletan. Hala, txangoen egitarau oparoa antolatu du urte osorako. Irteerrei dagokienez, Euskal Herriko zenbait ibilbide, gain eta tontor bisitatuko dituzte; halere, ihesaldi batzuk egingo dituzte Portugalera eta Espainiara. Domeka honetan, Plazaolako bide berdeari jarraituko diote, Leitzatik Lekunberrira, bertako sagardotegi batean bazkaltzeko, hilaren 19an. Martxoaren 5ean, Nafarroako Bardoitza mendira (1.115 metro) igoko dira, Bakedanoko ibilbidetik. Martxoaren 19an, Burgos eta Errioxa artean dauden Obarenes



© LEIOA M. T.

mendietara joango dira; klubak jakinarazi duenez, txangoa doakoa izango da. Apirilaren 2an, Nafarroako Arangoiti mendira (1.356 metro) igo eta Leireko monasterioa ikusiko dute. ◀

info+: 689 721 917 / info@leioamenditaldea.com

Zapatuan kirol-jaialdia egingo du Basakickek

Basakick borroka-klubak antolatu du Urduliz Arena goiburuko boxeoa eta kickboxing-jaialdia; zapatuan izango da, hilaren 18an, 20:00etatik aurrera. Hamabi borrokaldi izango dira Urdulizko Iparralde kiroldegian, horietako lau kickboxingean; gainontzekoak, boxeoa. Emakumeen arteko boxeoa-saio bakarra izango da, Izarrak klubeko Uxuri Arebaloren eta Urkabe-ko Paula Udaetaren artekoa. Kickboxingean, saio nagusia izango da Wesley Berriozabal de Jesusen eta Raul Castedoren artekoa, 70 kiloz azpikoan. Sarrerak aurretik eros daitezke 12 euroan; leihatilan, egunean bertan, 15 euroan. ◀

Hainbat domina lortu dute gure zortzi judokak

Gazte kategoriako Euskadiko Judo Txapelketa egin zen joan den otsailaren 4an, Gasteizen. Bertan, eskualdeko zortzi judokak domina bana lortu zuten. Orain arte egindako ahaleginaren ordaina jaso zuten Uribe Kostako klub bik: Getxo Judo Klubak (6 domina) eta Erandioko Judo Klubak (2 domina). Urrezko biak jantzi zituzten Alex eta Erika Kortabitarte neba-arrebek (Getxo); zilarrezko saria izan zuten Olatz eta Beñat Etxebarria neba-arrebek (Getxo); eta brontzea lortu zuten Mikel Lopezek (Erandio), Noemi Borrallor (Getxo), Mónica Villanuevak (Getxo) eta Andoni Larrazabalek (Erandio). ◀

Lointekekoak, Munduko Kopara



Gloria Rodríguez 2015eko azaroan heldu zen Lointek taldera. © FMC

Sopelako Lointek taldearen txirrindulari bi lehiatuko dira Pistako Munduko Kopan, aste-akabu honetan, Calin (Kolonia). Daborduko, bertan daude Ziortza Isasi elorriarra eta Gloria Rodríguez murtziarra. Espainiako selekzioaren hautatzaile Salvador Meliák jakinarazi duenez, txirrindulari biek taldekako jazarpen-proban parte hartuko dute, domekan, Ane Iriarte billabonatarrazagaz eta Balear Uharteetako Marga Lópezegaz batera. Laukotea Calin bertan hasi da batera entrenatzen. Helburu zehatz barik, ahalik eta hoberen egiteko asmoagaz lehiatuko dira.

Batetik, Ziortza Isasik lehenengo aldiz parte hartuko du Munduko Kopan; baina, nobedadea izatearren, ez da ezusterik izan bizkaitarra taldekako jazarpeneko laukoteko partaide izatea. Izan ere, Espainiako txapelketan urrezko hiru domina eta zilarrezko bat lortu zituen iaz, tartean 23 urtez azpiko mailako bi. Salvador Meliá Espainiako

selekzioaren hautatzaileak orduan ere berarengana jo zuen. Bestetik, Gloria Rodríguez ere hainbat domina batu zituen aurtengo Espainiako pista-txapelketan: urrezko bi eta zilarrezko bat. Laugarrena, errepidean lortu zuen.

Espainiako selekzioagaz Munduko Kopako hirugarren proban, eurakaz batera, bost euskal txirrindulari izango dira: Tania Calvo, Juan Peralta, Enrique Sanz, Illart Zuazubiskar eta Ana Usabiaga.

Meliák azaldu duenez, «Calin, helburua da taldekako probetan Munduko Txapelketarako sailkatzea; emakumezkoetan gertu gaude, baina falta da gizonezkoen taldekoka ixtea. Los Angelesen, oster, banakako probak berretsi eta ixtea izango da asmoa». Kalifornian jokatu da Munduko Koparen laugarren eta azken proba. Apirilean, berriz, Munduko Txapelketa izango da, Hong Kongen; bertan izateko aukera izan dezakete Isasik eta Rodríguez, ordurako puntu nahiko batuz gero. ◀

Ybarratarrak, Espainiako hockey-txapeldunorde

Rocío eta Lucía Ybarra ahizpak Espainiako txapeldunordeak dira areto-hockeyan; Sardinero talde kantabriarragaz lortu zuten balentria hori. Gainera, Rocío Ybarrak lehiaketako golegilearen saria irabazi zuen. Txapelketako finalean, Club de Campo talde madrildarraren aurka galdu zuten, 2-5, Madrilén jokatuako partidari. Aurretik, lan fina egin zuen talde kantabriarrak; finalera heltzeko Sardinero taldea 4-0 nagusitu zitzaion Sevillako Unibertsitateari final laurdenetan. Beste finalerdian, Club de Campok 3-0 irabazi zion Donostiako Realari. Taldekako fasean, Sardinero bere



© R. Y.

multzoko lehen lekuan sailkatu zen, zazpi puntugaz. Irabazi zion SPV Complutenseri eta Madrilgo Real Sociedad 1927 taldeari. Donostiako Realagaz ostera, berdinketa bakarrik lortu zuten. ◀

Morales, txapeldun, munduan eta European

Marcos César Morales Sarmiento Munduko eta Europako txapeldun berria da ergometroko modalitatean, 40-49 urtekoen mailan. Halere, Raspas arraun-elkarteko entrenatzaileak eta arraunlariak ezin izan du berretsi Bostonen iaz lortutako munduko txapela, arraun-ergometroan, banakakoan; oraingo honetan, brontzezko dominagaz konformatu behar izan da. Dena den, urrezko domina lortu du mundialaren taldekako modalitatean. Taldea Finlandiako eta AEBko gizon banagaz eta Ukrainako emakume batez osatu zuen. Munduko Indoor Arraun Txa-



Morales, Parisen. © LIONEL PIQUARD - AFF

pelketa joan den aste-akabuan jokatu zen. Aurretik, Parisen jokatuako Europako Rowing Indoor Txapelketan, Moralesek proba bitan irabazi zuen: 2 kilometrokoan eta 500 metrokoan. ◀

Garazi Sánchezek Laredoko olatua menperatu du, Australiara bidean

Garazi Sánchezek irabazi zuen Kantabriar jokatu zen Laredoko Neguko surf-proba, joan den otsailaren 5ean. Getxoztarraren atzean, Sara Urresti sopeloztarra igo zen podiumera; bere ostean, Janire Gonzalez zumaiarra eta Laredoko Angela Ayesa. Gizonezkoetan, Eneko Acero algortarrak emozioz betetako finala eskaini zuen, baina Marlon Lipke aleman-portugesaren atzean geratu zen. Podiu-

ma Pablo Gutiérrez kantabriarrak eta Henrique Pyrrait portugesak osatu zuten. Hala, aurton, daborduko, Sánchezek hiru garaipen lortu ditu: Israelgo Netanyahu sailkatze-seriea, Europako lidergoa eman diona; Red Bull Rivals ekimenaren txapelketa, Mundakan; eta Laredoko Negukoa. Sánchezen hurrengo erronkak Australian daude, Munduko Surf Ligaren sailkatze-serieen zenbait probatan lehiatzeko. ◀

Eskola Kiroleko proba eta Bizkaiko piragua-txapelketa, Plentzian

Aste-akabu honetan, piraguazaleek Plentziako itsasadarra eta badia hartuko dituzte. Izan ere, zapatuan eta domekan, hilaren 4an eta 5ean egingo dira Eskola Kiroleko estropadak eta Bizkaiko ur bareetako piraguismo-txapelketak, aurrekoan eguraldiagatik egin ez zirenak. Zapatuan, 8 eta 13 urte bitarteko 40 bat neska-mutilek parte hartuko dute estropadan, 10:00etatik aurrera. Domekan, Bizkaiko txapela

jantzeko lehia bizia egongo da; norgehiagokan izango dira Uribe Kostako hiru klubak: Barrikakoa, Getxokoa eta Plentziakoa. Aurreko egunean legez, 10:00etan abiatuko da lehia, Jai-Alai frontoiaren paretik, emakumeen txandagaz; 10:45ean gizonak irtengo dira. Butroe ibaian 2.500 metroan gora egin, ziaboga eman eta, bide beretik, behera egin behar izango dute palistek, arinenak jantziko du txapela. ◀

hirukalagun

Hau da zure txokoa!

hiruka zaitez...
eta abantaila askoz goza egizu!

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.

Non da? lehiaketa



SARIA

Oin-tratamendu bat egiteko lehenengo kontsulta bat zozkatuko dugu
Oinutsik zentroaren ekimenez

Gura baduzu, otsailaren 21a baino lehenago, helarazi erantzuna, zure izen-deiturak eta harremanetan ipintzeko bide bat hona: administrazioa@hiruka.eus edo 944 911 33

Otsaileko saria
Itxasgane jatetxean menua, bi lagunentzat



© LOURDES CARDENAL

Hilabete honetako sari hau HIRUKAlagunen eta bazkideen artean zozkatuko dugu, hil amaieran, otsailaren 28an. Oraindino HIRUKAlagun ez bazara, zeren begira zaude?

Zelan egin HIRUKAlagun?



Alboko QR kodea eskaneatuz (telefono mugikorraren bidez), edo bestela:

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna/
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

HIRUKA Koop.elk. Martikoena, 16, 2. solairua. 48991 GETXO

Abenduaren 13ko Datu Pertsonalen Babes Legearen 15/1999 Lege Organikoaren arabera, erabiltzaileek HIRUKAri emandako datuak fitxategi automatiko batean sartuko dira, erabiltzaileagaz harremanetan ipintzeko eta HIRUKAren informazioa eta publikizitatea helarazteko. Bestelako erabileretik erabiltzailearen aurretiko baimen zehatza behar dute. Erabiltzaileak gura duenean datuok zuzentzeko edo kentzeko bere eskubideak bete ditzake helbide honetara idatziz: hiruka@hiruka.eus

Sudokua

		4				2		3
5		6	2		8			
		2	9				6	
			8			3		2
				4				9
3	8		6				1	
					7	4		
2								8
	5	7						

Gogoan har egizu 1etik 9ra arteko zenbaki denek agertu behar dutela zutabe, ilara eta azpilauki bakoitzean.

Soluzioa

9	2	1	6	8	3	2	5	7
8	6	2	5	9	7	3	1	4
5	3	7	2	1	8	9	6	
7	1	5	2	2	9	6	8	3
6	8	9	3	7	5	1	2	4
2	2	3	1	6	8	5	7	9
2	9	8	7	5	6	2	3	1
1	7	6	8	3	2	9	2	5
3	5	2	9	1	2	7	6	8

+ Guardiako farmaziak, hilaren 16tik 22ra

Barrika

ZULOAGA. Udaletxeko bidea, 2. 946 774 716. Zapatuan, 09:00-14:00; eta domekan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Berango

EGUIA. Sabino Arana kalea, 20. 946 680 360. Astegunetan, 09:00-22:00; eta barikuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

IRUSTA. Aitz-gane kalea, 1. 946 680 153. Martitzeneko 22:00etatik eguazteneko 09:00ak arte.

Erandio

ARRUTIA. Obieta kalea, 15. ALTZAGA. 944 674 711. Astegunetan, 09:00-22:00.

GARCIA. Jose Luis Goioaga etorbidea, 25. ALTZAGA. 944 671 496. Zapatuan, 09:00-14:00.

DIAZ. Etxegorri kalea, 3. ASTRABUDUA. 944 170 291. Zapatuan, 09:00-14:00.

GASTEARENA. Meso, 24-26. ASTRABUDUA. 944 175 200. Zapatuan, 09:00-14:00.

TEIJELO. J. A. Agirre pl., 8 bis. ERANDIOGOIKOA. 944 530 124. Aste-akabuan, 09:00-14:00.

Getxo

ALZOLA. Arene kalea, 4. ALGORTA. 944 306 570. Egunero, 22:00-09:00.

ARISTEGUI. Juan Bautista Zabala, 1. ALGORTA. 944 911 798. Astegunetan, 09:00-22:00.

EZQUERRA. Ollarretxe, 27. ALGORTA. 944 303 328. Egunero, 09:00-22:00.

JIMÉNEZ. Illetas, 12. ALGORTA. 944 301 352. Egunero, 09:00-22:00.

LÓPEZ-LINARES. Kasune, 10. ALGORTA. 944 302 632. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

MORON. Bidezabal, 2. ALGORTA. 944 319 007. Astegunetan, 09:00-22:00.

SARRIA. Telletxe, 1. ALGORTA. 944 910 556. Astegunetan, 09:00-22:00.

ARRIOLA. Amaia, 29. AREETA. 944 805 328. Astegunetan, 09:00-22:00; domekan, 09:00-13:30.

BAYANO. Ibaigane, 9. AREETA. 944 638 460. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

PLATERO. Eduardo Coste, zk.g. AREETA. 944 630 635. Zapatuan, 09:00-22:00.

ELLACURIA. Andres Larrazabal kalea, 5. AREETA. 944 637 971. Astegunetan, 09:00-22:00.

ANDRACA. Maidagan, 61. GETXO. 944 914 697. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

GALARZA. Aingeruaren etorbidea, 2. GETXO. 944 914 704. Astegunetan, 09:00-22:00.

MONASTERIO. Gorbeia Mendia, 1. ITZUBALTZETA. 944 630 865. Astegunetan, 09:00-22:00.

NUÑEZ. Ibaiondo, 9. ITZUBALTZETA. 944 631 809. Astegunetan, 09:00-22:00.

Gorliz

ABURTO. Itsasbide, 5. 946 775 452. Astegunetan eta zapatuan, 09:00-22:00.

ROMERO. Itsasbide, 30. 946 128 941. Zapatuan, 09:00-13:30.

Leioa

ANGULO. Kandelazubieta, 19. 944 645 185. Zapatuan, 09:00-22:00.

TIEMBLO. Sabino Arana kalea, 89. 944 803 191. Martitzeneko, 09:00-22:00.

RAMOS. Langileria, 92. LAMIAKO. 944 645 185. Domekan, 09:00-22:00.

ORTEGA. Artaza, 8. NEGURIGANE. 944 608 501. Astegunetan, 09:00-22:00; zapatuan, 10:00-22:00.

ONA. Maiatzaren Bata, 4. PINUETA. 944 630 066. Astegunetan, 09:00-22:00.

SAN ANDRES. Larramendi plaza, 2. PINUETA. 946 572 295. Egunero, 09:00-22:00.

Lemoiz

GONZALEZ. Portubidea, 7. ARMINTZA. 946 879 341. Eguenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Plentzia

ARAMBURU. Erribera, 20. 946 775 301. Astegunetan, 09:00-22:00.

Sopela

DOLARA. Sabino Arana, 28. 946 129 547. Astegunetan, 09:00-22:00.

ITURBE. Iparragirre, 3. 946 764 768. Astegunetan, 09:00-22:00.

ERAZO. Loiola San Andres, 50. LARRABASTERRA. 946 762 363. Astegunetan, 09:00-22:00; eta zapatuan, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

ZUMARRAGA. Gatzarriñe, 6. LARRABASTERRA. 944 047 600. Astegunetan, 09:00-22:00; eta eguaztenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.

Urduliz

PARAMO. Aita Gotzon, 9. 946 764 507. Astegunetan, 09:00-22:00; eta astelehenean, 09:00etatik aurrera, 24 orduz.



Altzagako eta Portugaleteko gasoliozko batelez gurutza daiteke oraindino itsasadarra. Gaur egun, zerbitzu horiek biak baino ez dira geratzen; garai batean, hamabi txalupa zeuden alde batetik bestera itsasadarra zeharkatzeko.

KEPA UGARTE MARTIARENA



Garai batean, San Anton zubia zen itsasadarren alde batetik bestera igarotzeko azpiegitura bakarra. Zubi gehiagorik ez zegoen bazter bien artean; izan ere, kontuan hartzekoa da 1893ra arte ez zutela Bizkaia Zubia martxan ipini, Areeta eta Portugalete artean. Teknologia aurrera egin ahala, pasabide gehiago ipintzen hasi ziren. Hala ere, adibide bat ipintzearren, Salbe zubia (ofizialki, Espainiako Printzeak zubia) ez zuten 1972ko urtarrilaren 9ra arte zabaldu. Hala, ia XIX. mendera arte, «17 kilometroan behera, ez zegoen itsasadarren alde batetik bestera igarotzeko modurik, ura zeharkatuz ez bazen», azaldu du José Manuel Matés Luque itsas arkeologoak. Bere berbetan, «ertz biak hurbil samar daude. Beraz, ez zeukan zentzu handiegirik Bilboraino joateak, Santurtzitik Getxoraino edo alderantziz igaro gura izanez gero, behintzat».

Areeta eta Portugalete arteko ontzia 1757an hasi zen bidaiariei zerbitzu egiten; baina, «askoz lehenagotik existitzen ziren itsasadarren alde batetik bestera igarotzeko batelak», Matés Luqueren arabera. Batetik, 1511n, Espainiako koroak Bilboko Kontsulatuari eskumena eman zion Gaztelan sortzen zen Merino artilea Europako iparraldeko herrietara esportatzeko. Modu horretan, Iberiar Penintsulan iparraldeko porturik garrantzitsuena bihurtu zen Bilbo. Horrez gai-

nera, inguruko oletan sortutako burdina Ingalaterra, Holandara eta beste hainbat herrialdetara eroaten zuten. Hori dela eta, «pertsonak eta merkantziak garraiatzeko ontzietarako azpiegitura egokiak behar zituen Bilbok», nabigazio-ikertzaile basauriarrak esan

Bidaiarien jaitsiera 1980ko hamarkadako industriaren birmoldaketagaz nabaritzen hasi ziren Altzagako ontziralekuan


duenez. Horregaz batera, ontzigintza-jarduera handitu egin zen: besteak beste, Zorrotzako Errege Ontziola zabaldu zuen Espainiako koroak, 1615ean. Horiek denek ertz batetik bestera joateko garraio bideak sortzen lagundu zuten; batelak beharrezkoak ziren itsasadarra zeharkatzeko.

Bestalde, XIX. mendearen amaieratik aurrera, Espainiako probintzia askotako lagunak erakarri zituen industrializazioak, Bilbora eta inguruko herrietara. Matés Luquek dioenez, XX. mende erdialdean areagotu egin zen kanpotarren etorrera; «izan ere, 36ko Gerraren amaieraren osteko urteak gogorak izan ziren hainbat probintzian. Espainiako lurralde asko guz-

tiz suntsituta geratu ziren; oster, itsasadarren inguruko fabrikek langileak behar zituzten ekoizten jarraitzeko», aipatu du etnografia-ikerketetan adituak. Bilbo aldean ez ezik, Uribe Kostako hainbat herritan ere altxatu ziren beharginentzako etxebizitzak; berbarako, Itzubaltzeta/Romon, *Etxe merkeak* izenagaz ezagunak dira, gaur egun.

Beharginen garraio bideak

Horrenbestez, guztiz beharrezkoa zen bestelako azpiegiturak sortzea: trenbideak, errepideak eta itsasadarreko alde biak lotuko zituzten zubiak, berbarako. Hori dena jazotzen zen bitartean, gasoliozko bateletan joaten ziren langileak fabriketara. «Gutxi gora-behera, garai hartan ipini zieten gasoliozko motorra ontziei», Matés Luquek azpimarratu duenez. Ezker aldearen eta Eskuinaldearen arteko bereizketa ere orduan hasi zen nabarmenagoa egiten. Ikertzaileak dioenez, «gehienbat, aldeetako batean sortu ziren langile-auzo handiak; beste aldean, oster, burgesiak zeukan bizilekua». Horiek denak elkarregaz harremanetan ipintzea guztiz beharrezkoa zen, basauriarraren esanetan; horretarako zeuden bazter bien arteko txalupak. Gainera, ezin dugu ahaztu itsasadar osoa bete zutela Euskalduna edo La Naval bezalako ontzirolek, ezkerreko zein eskumako aldean. «Egunero behargin mordoa joaten zen alde batera zein bestera», Matés Luquek aipatu duenez. Itsasoko arkeologoak frogatu ahal izan duenez, Bilbo Zaharretik Areetaraino, itsasadarra zeharkatzeko ontzietarako hamabi galea zeuden, Bilboko eta Bizkaiko industriagintzaren garairik oparoenetan. Baina, 1980ko hamarkadan, Ezker alde eta Eskuinaldea gogor astindu zituen desindustrializazioak; lantegi asko itxi



etik bestera

behar izateaz gainera, itsasadarraren bazterretan zeuden gasoliozko bateletarako geraleku gehienak desagertu ziren.

Gaur egun, Ibaizabaleko urak, ontziz, alde bate-tik bestera zeharkatzeko, garraio-enpresa bi baino ez dira geratzen: Boteros del Nervión sozietate mugatua arduratzen da, 2007az geroztik, Altaga (Erandio) eta Barakaldo arteko bidaiak egiteaz. Bestalde, Portugaleteko Txalupa-gidarien Elkartea egiten ditu Areetarinoko ibilbideak, eta alderantziz. Enpresa bien egoera «ez da pozik egoteko modukoa», arduradunek aitortu dutenez. Antonio Gerreiro Martínez azaldu duenez, Erandio eta Barakaldo arteko ontzia 1906tik martxan dago. «Arrazoia bata edo bestea zela, enpresa askok zerbitzua emateari utzi zioten, eta beste batzuek hartu zuten horien lekukoa», gaineratu du gasoliozko batel-gidariak eta enpresa-gizonak. Beste lankide bategaz sortu zuen Boteros del Nervión sozietate mugatua, 2007an.

Gerreirok aitortu duenez, «orain dela 35 urte, hona etorri nintzenean, 32 lagun geunden lanean. Orain, bi baino ez gara». José Manuel Matés Luque ikertzaileak azaldu legez, industriaren birmoldaketagaz hasi ziren nabaritzen bidaiarien jaitsiera, Altagako ontziralekuan. Gerreiroren berbetan, «1987an, egunero 12.000 eta 18.000 lagun igarotzen ziren itsasadarretik, Erandio eta Barakaldo artean. Lau txalupagaz ibiltzen ginen aldi berean; gainezka zihoazela». Horietatik denetatik bi mila lagun ARN ontziola erandioztarrera ei zihoazen. Ostera, Barakaldora bidea hartzen zuten gehienek Bizkaiko Labe Garaietan lan egiten zuten. «Gaur egun, 250 bidaiari inguru izaten ditugu egun bakoitzean», adierazi du pena handiz Boteros del Nervióneko arduradunak.

Ordutegiei dagokienez, astelehenetik barikura, 05:30etik 21:30era zerbitzu egiten die bidaiariei Altagako gasoliozko batelak; beste ontzi bi dauzkate. Aste-akabuetan, ostera, txangoak, urtebetetzeak, ezkondu aurreko agurrak eta bestelako jarduerak egin ohi dituzte. Abuztuan, besteak beste, Aste Nagusian, egunero ateratzen dira su artifizialak ikustera. «Halako ekitaldiengatik ez balitz, bost urte eroango lituzke ur-bazterrean txalupak», aitortu du Gerreirok. Izan ere, batel-gidariak esan duenez, enpresa zabaldu zutenetik ez dute ohiko bidaiaren salneurrik aldatu: orain dela 10 urte legez, 1 euro ordaindu behar du Erandiotik Barakaldora (edo alderantziz) igaro

Portugaleteko txalupa-gidariak aitortu dutenez, «kalte handiena» egin die «Metro Bilbaoren bigarren linea zabaldu izanak»

gura duenak. Bestalde, 30 bidaiak egiteko txartela ere badaukate, 27 euroan (0,90 euro bidaiak bakoitzeko). «Salneurriak igotzekotan ez genuke bidaiaririk izango; etxera joan behar izango genuke», dio Gerreirok.

Bizkaia Zubia, lagun

Areeta eta Portugalete arteko txalupak 1757an hasi ziren zerbitzu hori egiten; garai hartan, zazpi pertsonarentzako edukiera zeukaten ontziak erabiltzen zituzten; 1900. urtean 14 lagunentzako leku-kopurua zeukaten arraun-batelakaz hasi ziren. Portugaleteko Txalupa-gidarien Elkartearen gerentea den Juanma Hernández Santa Mariak azaldu duenez, urte haue-

tan guztietan ez dute ezelako lehiarik eduki Bizkaia Zubiagaz; historiari begiratzea besterik ez dago. 1936ko Gerran suntsitu egin zuten zubia eta ezin erabili izan zuten 1941era arte. Hala, Portugaleteko Udalak motordun txalupak ipini zituen; bidaiariak dirutruke garraiatzeari ekin zion, alde batetik bestera. Aurrerago, gerra ostean, agintari portugaletarrek batelez arduratzeari uko egin zioten; ondorioz, txalupa-gidarien elkarteak sortu zen, 1969an. Aipatzekoa da Bizkaia Zubiak matxura bat daukan bakoitzean bertan daudela gasoliozko batelak, laguntzeko prest.

Ez dago sasoirik onenean Areeta eta Portugalete arteko ontzia. Hernándezek azaldu duenez, «orain dela 27 urte hasi nintzen hemen beharrean, eta orduan, jendez gainezka zihoazen erabiltzen genituen lau txalupak; gaur egun, ostera, bidaiariak noiz etorriko zain egon behar izaten dugu». *Euskal Herria* ontzia ere eurek kudeatzen dute. Batel-gidariaren eta enpresa-arduradunaren berbetan, lehen bi mila bidaiari eroaten zituzten, egun bakoitzean. Erabiltzaile-kopurua zergatik jaitsi den galdetuta, Hernándezek oso argi erantzun du: fabrikak ixteak eragin handia izan zuen; baina, kalte handiagoa egin digu beharbada Metro Bilbaoren bigarren linea zabaldu izanak». Trenbide hori 2002ko apirilaren 13an zabaldu zuten, baina 2005eko urtarrilaren 8ra arte ez zen Portugaleteraino heldu. «Jendea nagiago bilakatzen da. Metroa etxe ondoan edukita, ez dute honaino jaitsi gura», aitortu du nahigabez txalupa-gidariak. Areeta eta Portugalete arteko gasoliozko ontziak ondoko ordutegia dauka: astelehenetik barikura, 05:45etik 22:10era; zapatuetan, 08:00etatik 22:10era; eta domeketan, 10:00etatik 22:00etara. Bidaiak bakoitzeko txartela 0,35 euroan dago. ◀

© ANTONIO J. VELEZ



Mundukatuak

Jairo López Guevara bugatarra

«Batzuetan, gaztelaniaz egitean, ez naute ulertzen»

Jairo López Guevara 1973an heldu zen Euskal Herrira, 20 urte zituen orduan. Itsas armadako ikasketak utzi zituen merkataritza-ontzien ikasketak egiteko, eta horrek ekarri zuen Portugaleteko Nautika Eskolara.

Urte hartan, ikasketa horien eskuduntza Garraio Ministeriotik Hezkuntzara aldatu zen; horrek protestak eta grebak eragin zituen. Hala, ia eskolara joan barik prestatu zituen azterketak, baita gainditu ere. Ostera, bere lagun batzuk nabarmendu egin ziren protestetan, eta Kanarietara alde egin behar izan zuten, «eskolan argi esan zite-lako ez zituztela gaindituko». Hori ez zen izan ikasketetan arazo bakarra, Bugakoak lau urtez itxaron behar izan baitzuen Kolonbian egindako ikasgaiak balioztatu zizkioten arte. Getxon finkatu zen López, gaur egun Leioan bizi bada ere. Bertan «birao asko» erabiltzea harritzekoa zen berarentzat,

bere jaioterriagaz alderatuz gero, jakina. Gainera, azaldu duenez, «batzuetan ez naute ulertzen, gaztelaniaz berba egin arren». Izan ere, bere ustez, hiztegi laburra erabiltzen du hemengo jendeak, Atlantikoaren beste aldeko

“Buga bizi izan nintzen garaian, lapurrek osten zuten, ez politikoek”

berba-aberastasunetik oso urrun. Lau hizkuntza menpean hartuta, orduak eta orduak eskaini dizkio euskarari ere, Areetako hizkuntza-eskolan. Daborduko, moldatzen da testuakaz, elkarriketakaz baino hobeto.

Lópezek azaldu duenez, jende errebeldeen sorlekua izan da Buga. Horren adibide ipini du Jose María Cabal jene-

rala, Bugako ordezkaria izan zena espainiarren aurkako 1810eko independentzia-gerran, 1816an hil zutenera arte. Bestalde, «pertsona langileen ingurua» da; gehienek behar egin dute Guadalajara ibaiaren ondoko nekazaritza-eremuetan, azukre-kanaberara lotutako industrian edo geratzen diren meatzaritza-esplotazio urrietan. 1555etik hona, hiria hainbat alditan lekuz aldatu eta berreraiki dute, Caucako haranean, mendilerroen artean. Buga batez ere ezaguna da Mirarien Jaunen baselizagatik; mundu osoko erromesak joaten dira haraino, Kristoren irudiari arren egiteko eta erregutzeko. Bisitariek hiriko etxe kolonialak eta euren patioak ere ikusi beharko lituzkete, leioztarraren iritziz. Bestalde, Kolonbiako nekazaritza eta abeltzaintzaren nazio-azoka egiten da bertan: «Gernikako azken astelehena bezalakoa da, baina askoz ganadu gehiagogaz». ◀

NOR DA

Nongoa

Bugakoa edo, ofizialki, Gudalajara de Bugakoa (Valle del Cauca, Kolonbia).

Adina

63 urte.

Zertan dabil

Jubilatuta dago; aurretik, makineriako buru izan da merkantzia-ontzietan. Gaur egun, bela-estropadetan eta xakean dabil.

Ikasketak

Makineriako buru titulua bukatu zuen Portugaleteko Nautika Eskolan.

Noiztik Euskal Herrian

1973an heldu zen, ikasketak bukatzeko.

NONGOA DA



Lurraldea

Kolonbia.

Azalera

1.141.748 km² (54 aldiz Euskal Herria).

Herria

Gudalajara de Buga.

Biztanleria

114.807. López joan zenean, horren erdia.



Hizkuntzak

Gaztelania da hizkuntza erabiliena, eta ofiziala den bakarra. Herrialdean oraindino bizirik daude jatorrizko herrien 65 hizkuntza, 800.000 bat hiztunegaz, dena. Kolonbiako 1991ko Konstituzioak koofizialtzat onartu zituen, lehenengoz; baina, bakoitza bere eremuan baino ez. Valle del Cauca, jatorrizko herrietako kide gutxi geratzen da, gehienak dira chibcha hizkuntzakoak, eta Chocoko mugan daude.

Dirua

Kolonbiako peso.

Erakunde laguntzaileak:



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
 (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua